

H1 GISAKO URRUNTASUN LUZEKO NZ-GALDEREN JABEKUNTZA HAUR EUSKALDUN BATENGAN

M. Junkal Gutierrez Mangado

EHU/UPV

Abstract

In this article we present data from the first language (L1) acquisition of Long-distance (LD) wh-questions. The subject's age at the beginning of the experiment was 5;1. The main aim of the investigation was to examine the development of this structure longitudinally and on the other hand to compare the results obtained with similar experiments reported in the literature. Our results show that the acquisition of this structure in Basque is consistent with the findings from other L1s such as English (Thronton 1990), French (Oiry 2003, Jakubowicz 2004), Dutch (van Kampen 1997) and Spanish (Gutierrez 2006). The main finding from these investigations, also confirmed for L1 Basque, revealed that in the process of acquisition children produce structures which are absent in the adult language, that is, in the language they are acquiring. However, this non-adult structures known as Partial wh-movement and wh-copying structures can be found in several natural languages and as such are part of Universal Grammar (UG). The main contribution from our experiment lies in the longitudinal nature of the experiment, shedding light in the development of these types of questions through time.

Sarrera¹

Artikulu honetan euskarazko urruntasun luzeko (UL) NZ-galderen jabekuntzari buruzko datuak aurkeztuko ditugu. Euskarazko UL-ko NZ-galdera batek behean agertzen den itxura du:

(1) Nor uste duzu maite duela Mikelek?

Gure helbururik garrantzitsuena Axel (A) izeneko haur euskaldunaren galderen bilakaera aztertzea da, eta bide berean Axelek beste H1eko hizkuntzatan aurkitu diren ezohiko galderak ekoizten dituen ikertzea. Ezohiko egitura hauetan erlazioaturiko bi NZ-hitz aurkitzen dira, beheko adibide hauek erakusten duten bezala:

(2) H1 ingelesa (adibideak Thorntonetik (1990: 213, 212) daude hartuta)

¹ Ikerlan hau Espainiako Zientzi eta Teknologi Ministerioaren (BFF 2000-0101) eta Eusko Jaurlaritzako/EHUko (00103.130-13578/2001) diru laguntzarekin eraman da aurrera. Litezkeen okerren arduraguztia nirea da.

- a. *What do you think who jumped over the can?*
 zer lag. zuk uste nor salto egin-iragan. gainetik det. potea
 Lit: 'Zer uste duzu nork salto egin zuen potearen gainetik?'
- b. *Who do you think who is in the box?*
 nor lag. zuk uste nor dago barruan det. kaxa
 Lit: 'Nor uste duzu nor dago kaxa barruan?'
- (3) H1 nederlandera (adibideak Van Kampenetik (1997: 140, 155) daude hartuta)
- a. *Wat denk je bij de hoeveelste ik ben?* (L². 7;11.8)³
 zer uste-2sg zuk -tan zein zenbaki ni nago
 Lit: 'Zer uste duzu zein zenbakitan nago?'
- b. *Waarom denk je waarom ik op swemles zit?* (L. 8;3.8)
 zergatik uste-2sg zuk zergatik nik gainean igeriketa klaseak nago
 Lit: 'Zergatik uste duzu zergatik igeriketa klaseetara joaten naiz?'
- (4) H1 frantsesa (adibideak Oirytik (2002) daude hartuta)
- a. *Tu crois quoi qui est caché dans le sac?*
 zuk uste-2sg zer -ela/zein dago ezkutatuta -n det. Poltsa
 Lit: 'Zuk uste duzu zer dagoela ezkutatuta poltsan?'
- (5) H1 gaztelania (adibideak Gutierrezitik (2006: 252) daude hartuta)
- a. *¿Tú qué crees cómo ha hecho el castillo?* (M. 5;5)
 zuk zer uste-2sg nola du egin det. gaztelua
 Lit: 'Zer uste duzu nola egin du gaztelua?'
- b. *¿Dónde crees dónde ha ido el niño?* (M. 5;7)
 nora uste-2sg non du joan det. mutikoa
 Lit: 'Nora uste duzu nora joan da mutikoa?'

Goiko (a) adibideetan Mugimendu Partzialeko adibideak agertzen dira. Galdera hauetan, lehenengo NZ- hitza 'zer' galderari dagokiona da eta erantzunak ez dio inoiz NZ-hitz honi erantzuten. Benetako NZ-hitza, hau da, erantzun behar den NZ-hitza perpaus txertatuaren hasieran agertzen da: *who* 'nor' ingelesezko adibidean, *bij de hoeveelste* 'zein zenbakitan' nederlanderez, *qui* 'zein' frantsesezko adibidean eta *cómo* 'nola' gaztelaniazko adibidean. (b) adibideetan bestalde, NZ-kopia egitura agertzen da. Egitura honetan erantzun behar den NZ-hitza bi guneean agertzen zaigu: lehenengo perpaus nagusiko ezker aldean eta bigarrena mendeko perpausaren hasieran. Ez da ahaztu behar bi galdera mota hauek normalean (1) bezalako galderek jasotzen duten erantzun berbera jasotzen dutela, hau da, interpretazio berbera dutela.⁴

² Haurrek ekoizturiko adibideen ondoren agertzen den letra, esaldia ekoiztu duen haurraren izenaren hasierako letra da. Kasu honetan haurraren izena L letraz hasten da.

³ CHILDES-eko konbentzioei jarraituz, haurren adina honela adieraziko dugu: 7;11.8. Puntu eta komaren aurretik agertzen diren lehenengo zenbakiak haurraren adina urteetan adierazten dute. Puntu eta komaren ondoren aurkitzen diren bi zenbakiak hilabeteak adierazten dituzte eta puntuaren ondoren agertzen diren zenbakiak, egunak. Beraz, kasu honetan haurrak zazpi urte, hamaika hilabete eta zortzi egun ditu.

⁴ Baina ikus Herburger (1994), norentzako Mugimendu Partzialeko egiturek, bavaroan, interpreta- zio ezberdin bat jasotzen duten UL galdera arruntekin konparatuaz.

Jarraian ikusiko dugun bezala, haurren gramatikan aurkitzen diren ezohiko galdera hauek GU-ak onartzen dituen egituren artean daude, zenbait hizkuntza naturaletan horrelako egiturak erabiltzen baitira UL galderak egiteko. Era berean ez dugu ahaztu behar mota honetako galderak ez direla aurkitzen helduen ingelesezko, nederlanderazko, frantsesezko, gaztelaniazko ez eta euskarazko gramatiketan.

Euskarazko esperimentuaren emaitzek erakusten dute Axelek ere UL ezohiko NZ galderak ekoizten dituela, beste H1 hizkuntzetan aurkitu den bezalaxe. Hona hemen Axelek ekoizturiko Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturako adibide bana:

- (6) a. *Zer uste duzu* [_{KONPS} *zein bizi dela etxean*]? (A. 5;1)
 b. *Nor uste duzu* [_{KONPS} *nor bizi dela etxe horretan*]? (A. 5;10)

Lehenengo adibidean, (6a), erantzun beharreko NZ-galdera perpaus txertatuko Konplementatzaile Sintagmaren (KonpS) eremuan agertzen da, bigarren NZ-hitz bat galdera nagusiaren ezker aldean agertzen delarik, galdera osoaren besarkada erakutsiaz. Aipatu bezala, galdera mota hau Mugimendu Partzial edo NZ-besarkada markatzen duten galderak bezala ezagutzen da. Bigarren adibidean, (6b), bestalde, erantzun beharreko NZ-hitzaren bi kopia ahoskatzen dira, bata perpaus txertatuko KonpS-ren eremuan eta bestea perpaus nagusiarenean. Egitura hau NZ-kopia egituraz ezagutzen da.⁵

Euskarazko UL-ko NZ-galderen bilakaeran aurkitutako ezohiko galdera hauek adierazten dute, beste hizkuntzatan bezalaxe, egitura honen jabekuntza prozesuan helduen hizkuntzara heldu aurretik Axelek Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturak ekoizten dituela euskaraz. Bestalde, euskarazko datuek, denboran zehar jarraipen bat egiten dutenez, datu berriak azaltzen dituzte. Hasteko, Axelen datuek erakusten dute ekoizten dituen lehenengo galdera guzti guztiak Mugimendu Partzialekoak direla, eta gero NZ-kopiak ekoizten hasten dela, helduen hizkuntzan aurkitzen diren UL-ko galderak ekoizten hasi aurretik. Aurkikuntza hau gaztelaniako H1 gisako denboran zehar eginiko beste ikerketa batean lorturiko datuekin bat dator (Gutierrez 2006). Euskarazko ikerketak eskaintzen duen bigarren erakarpina aurkitutako Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopien aldaera berriak da haur hizkuntzan. Gaztelaniazko ikerketan gertatu zen bezala, aldaera berri hauek euskararen ezaugarri propioetatik datoz eta ikusiko dugun bezala egitura hauek ezohiko galderen analisi berri batera eramango gaitu. Azkenik, esan dezakegu euskarazko datuek erakusten dutela GU-ak eskaintzen dituen aukerak oinarri hartuta, haur hizkuntza batetik bestera aukera hauek hizkuntza bakoitzaren ezaugarri propioen eraginez aldatu agin daitezkeela.

Jarraian, artikulua antolaera azalduko dugu. Aurreneko atalean, hizkuntza ezberdinetan NZ-galderak egiteko modu ezberdinak aurkeztuko ditugu, batez ere UL-ko galderei erreparatuaz eta Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopien egiturak azaltzeko literaturan eskaini izan diren zenbait analisi laburbilduaz. Segidan, euskararen NZ-galderei buruzko hainbat ezaugarri eta beste H1 hizkuntzen UL-ko NZ-galderei buruzko esperimentuak deskribatu eta emaitzak erakutsiko ditugu.

⁵ Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egituren xehetasun gehiago Lutz et al. (2000) bilduman agertzen da.

Jarraian euskarazko H1 jabekuntzari buruzko gure esperimntua aurkeztuko dugu lortu ditugun emaitzak eztabaidatuaz.

NZ-mugimendu aukerak hizkuntzetan zehar

Hizkuntza naturaletan, orokorrean, NZ-galderak egiteko bi modu aurkitzen ditugu: alde batetik NZ-hitzaren azaleko inongo mugimendurik gabe sortutako galdeak ditugu. Aukera hau txinera, japoniera edo hindieran aurkitzen da:

(7) Mandarin txinera (Cheng, 1991:11)

a. *hufei mai-le yi-ben-shu.*

Hufei erosi-ASP bat-CL-liburu
'Hufeik liburu bat erosi zuen'

b. *hufei mai-le sheme*

Hufei erosi-ASP zer
'Zer erosi zuen Hufeik?'

(7a) adibidean baiezko esaldi bat dugu, objektu zuzena letra lodiz agertzen delarik. (7b) adibideak berriz objektuzko NZ-galdera bat erakusten du: kasu honetan objektuzko *sheme* NZ-hitzak, lodiz agertzen dena, baiezko esaldian objektuak hartzen duen posizio berbera hartzen du. Beraz ez dago azaleko NZ-mugimendurik. Bestalde, beste zenbait hizkuntzatan NZ-galderak osatzeko NZ-elementuak perpausako ezker aldera mugiturik aurkitzen dira. Adibide bezala, ingelesa (8) edo alemana (9) ditugu:

(8) *Who_i did he kiss t_i?*

nor lag. bera muxukatu
'Nor muxukatu zuen berak?'

(9) *Was hat Hans gesagt?*

zer lag. Hans esan
'Zer esan du Hansek?'

(8) adibidean objektuaren abiagunea perpausaren eskuin aldean agertzen den t_i sinboloak erakusten du, hots, aztarna batek, baina objektua den *who* 'nor' NZ-hitza, perpausaren ezker aldean agertzen da, KonpS-ean. Beraz, esan daiteke NZ-hitza bere lekutik ezker aldera mugitu dela.

NZ-mugimendua erabiltzen duten hizkuntzen artean beste azpi sailkatze bat egin dezakegu. Alde batetik, bi NZ-hitzei buruz galdetzen denean, zenbait hizkuntzek NZ-hitz bat bakarrik mugitzen dute perpaus nagusiko KonpS-era, bigarrena in situ gelditzen delarik. Hau ingelesez gertatzen da, (10) adibidean ikus daitekeenez:

(10) *Who did what?*

nork egin-irag. zer
'Nork egin zuen zer?'

Bestalde, badago beste zenbait hizkuntza non NZ-galdera guztiak perpausaren ezker aldera mugitzen diren. Hizkuntza hauek *Multiple fronting languages* edo 'Aurre-ratze Anitzeko Hizkuntzak' dira. Hauen artean hungariera edo bulgariera aurkitzen dira:

(11) Bulgariera (Rudin 1986)

Koj kogo e vidjal.

nork nor ikusi-3s
'Nork ikusi zuen nor?'

Ikus dezagun orain zer gertatzen den hizkuntza hauekin UL NZ-galderak sortzeko garaian. Goian ikusi ditugun hizkuntza guztiek ez dituzte uniformeki modu

berean UL NZ-galderak egiten. Horrela, aipaturiko bi azpimultzoetan (NZ-hitza in situ uzten dutenak eta baita ere NZ mugitzen dutenak) badago zenbait hizkuntza estrategia ezberdin bat erabiltzen dutenak. UL NZ-galderak egiteko estrategia honetan NZ-hitza bat matrizean agertzen da eta perpausaren besarkada ezartzen du. Erantzun beharreko NZ-hitza ordea mendeko esaldian ahoskatzen da: NZ-in situ diren hizkuntzatan baiezko perpausaren elementu horrek berak hartzen duen tokian eta NZ-mugimendua duten hizkuntzatan perpaus txertatuko ezker aldean. NZ-in situ duten hizkuntzen artean, hindierak erabiltzen du estrategia hau (hindiera SOV hizkuntza da):

- (12) Hindiera (Lutz et al.-etik, (2000: 7) moldatuta)
Raam-ne kyaa kahaa thaa ki kis-ne kis-ko maaraa?
 Raam-erg zer esan zuen nork nor jo zuen
 Lit: 'Zer esan zuen Ramek nork nor jo zuela?'
 'Nork esan zuen Ramek jo zuela nor?'

Ikusten den bezala, (12) adibidean matrizeko perpausaren NZ-hitza bat agertzen da, *kyaa* 'zer' zehazki, galderaren besarkada erakutsiaz. Eta erantzun beharreko NZ-hitza berriz, in situ agertzen dira, hau da, baiezko esaldi batean hartuko luketen gunean agertzen dira. Galdera osoaren interpretazioa berriz, UL galdera arrunt baten da. NZ-mugimendua duten hizkuntzen artean berriz, eta NZ-hitza bat bakarrik mugitzen den hizkuntzetan, badago zenbait hizkuntza, non ingelesean aurkitzen den UL mugimenduz gain ((13)an erakusten dena) Mugimendu Partzialeko egiturak eta/edo NZ-kopia egiturak dituztenak.⁶ Hizkuntza hauen artean, bavaroa eta frisia ditugu:⁷

- (13) Ingelesa
Who_i do you think [_{KonpS} t_i he kissed t_i?]
 nor lag. zuk uste berak muxukatu zuen
 'Nor uste duzu muxukatu zuela?'
- (14) Frisiera (Hiemstra 1986: 97)
 a. *Wat tinke jo wa't ik sjoen haw t?*
 zer uste zuk nor-cl nik ikusi dut
 Lit: 'zer uste duzu nor ikusi dudala?'
 'Nor uste duzu ikusi dudala?'
- b. *Wa tinke jo wa't ik sjoen haw?*
 nor uste zuk nor-cl nik ikusi dut
 Lit: 'Nor uste duzu nor ikusi dudala?'
 'Nor uste duzu ikusi dudala?'

⁶ NZ-hitza mugida menpeko perpausetik matrizea pausoka ematen dela onartzen dugu. Hots, (13) adibidean, perpaus nagusirako bidean, NZ-hitza bere abiapuntutik menpeko perpausako objektuzko posizioan, *t_i* sinboloak adierazten duena, lehendabizi menpeko perpausako Spez Konp gunetik igarotzen da, *t_i* sinboloak erakusten duen bezala (Chomsky 1977, eta ondorengoak).

⁷ Kontuan hartu behar da Mugimendu Partziala onartzen duten NZ-mugimendua duten hizkuntza gehienetan ingelesean aurkitzen dugun UL NZ-galderak ere posible direla.

(13) adibidean, *who* ‘nor’ NZ-hitza perpaus txertatuko objektuzko gunean sortzen da, t_i batez markatuta dagoen posizioan, baina ahoskatu, matrizeko ezker aldean ahoskatzen da. (14a) adibidean berriz, NZ-galderaren besarkada, erantzunik jasotzen ez duen *wat* ‘zer’ NZ-hitza ezartzen du. Erantzun beharreko NZ-hitza berriz, bere objektuzko posiziotik, perpaus txertatuko eskuin aldetik, perpaus txertatuko ezker aldera bidaiatzen du.⁸ Azkenik, (14b) adibidean, NZ-kopia egituraren adibide bat daukagu. Hemen, NZ-galderaren besarkada *wa* ‘nor’ NZ-hitza ezartzen du, hots, perpaus txertatuko ezker eremuan agertzen den NZ-hitza kopia batek.

NZ-galdera matrizean NZ-hitz guztiak aurrera mugitzen dituzten hizkuntzen artean, bulgariara bezalako hizkuntzak aurkitzen ditugu. Hizkuntza hauetan Mugimendu Partziala ere erabiltzen oi da (15a) ingelesezko UL galderekin batera (15b):

(15) Hungariera (Marác 1990: 297, 325)

- a. *Mit gondolsz hogy Jánost kinek mit adott?*
 NZ-acc zuk uste -ela János nori-dat zer-acc eman zion
 Lit: ‘Zer uste duzu Janosek nori zer eman ziola?’
 ‘Nori uste duzu Janosek eman ziola zer?’
- b. *Kit gondolsz hogy Jánost látta?*
 nor-acc zuk uste -ela János ikusi zuen
 ‘Nor uste duzu ikusi zuela Janosek?’

Ikusi berri ditugun bi egitura hauek, Mugimendu Partzialekoak eta NZ-kopia egiturak, gure analisiarentzako garrantzia duten zenbait ezaugarri aipatuko ditugu jarraian. Hasteko, NZ-hitza konplexua denean (adibidez *zein mutil* bezalako berbaldiri loturiko (Bri-loturiko) NZ-hitz bat erabiltzen denean) NZ-kopia egiturak ez dira posible. Kasu horietan ingelesezko UL moduko egiturak edo Mugimendu Partzialeko egiturak erabil daitezke. Hau da, Bri-loturiko NZ-hitz bat mendeko KonpS-an ahoskatzen bada, matrizean agertzen den NZ-hitza sinplea izan behar du jarraian, alemanezko (16a) eta (16b) adibideetan agertzen den modukoa:

(16) Alemaneko adibideak (Thorntonetik (1990: 229) moldatuak)

- a. **Wessen Buch glaubst du wessen Buch Hans liest?*
 zein liburu uste-2sg zuk zein liburu Hansek irakurtzen du
 Lit: ‘Zein liburu uste duzu Hansek zein liburu irakurtzen duela?’
 HELBURUA: ‘Zein liburu uste duzu irakurtzen duela Hansek?’
- b. *Was glaubst du welchen Mantel Jakob heute angesogen hat?*
 zer uste duzu zein beroki Jakobek gaur jantzi du
 Lit: ‘Zer uste duzu zein beroki jantzi duela gaur Jakobek?’
 ‘Zein beroki uste duzu jantzi duela Jakobek gaur?’

(16a) adibidean ikusten den bezala, Bri-loturiko NZ-hitzekin ezinezkoa da NZ-kopia egitura erabiltzea. Bere ordez, (16b) bezalako egitura erabili daiteke, hau da, Mugimendu Partzialeko egitura, non Bri-loturiko NZ-hitza perpaus txertatuaren KonpS-an gelditzen den eta NZ-galderaren besarkada NZ-hitz sinple batek ezartzen duen. Bestalde, Bri-loturiko NZ-galderak egiteko beste bi aukera ere aurki di-

⁸ Frisieraz kasu honetan *wa* nz-hitza *dat* (t_i) konplementatzailea klitizizatzen zaio *wa't* sortuz.

tzakegu alemanezko zenbait dialektotan (Fanselow eta Čavar 2001). Ikus ondorengo bi adibideak:

- (17) Alemaneko adibideak: (Fanselow eta Čavar 2001: 18)
- a. *Welchen Mann denkst du wen er kennt?*
 zein gizon uste-2sg zuk nor berak ezagutzen du
 Lit: 'Zein gizon uste duzu nor berak ezagutzen du?'
 'Zein gizon uste duzu ezagutzen duela berak?'
- b. *Wen denkst du wen von den Studenten man einladen sollte?*
 nor uste-2sg zuk nor artean ikasleen batek gonbidatu beharko luke
 Lit: 'Nor uste duzu ikasleen artean batek gonbidatu beharko luke?'
 'Zein ikasle uste duzu batek gonbidatu beharko lukeela?'

(17a) galderan, Bri-loturiko NZ-hitza perpaus nagusiko KonpS-an ahoskatzen da eta mendeko KonpS-an agertzen den NZ-hitza berriz, nahiz eta kopia zehatz bat ez izan 'txertatutako KonpS-an ahoskatu behar diren gutxieneko NZ-tasunak' (Fanselow eta Čavar 2001: 18) da. (17b) adibidean bestalde, aurkakoa gertatzen da: Bri-loturiko NZ-sintagma perpaus txertatuko KonpS-an ahoskatzen da eta matrizeko besarkada markatzen duen elementuak komunztadura erakusten du txertatutako NZ-sintagmarekin. Beraz, ikus daiteke hizkuntza naturaletan hainbat aukera aurkitzen direla UL NZ-galderak sortzeko. Aipatu behar dugu ere, goian deskribaturiko murriztapenaz gain, hots, Bri-loturiko NZ-hitzak ez direla NZ-kopia egituratan agertzen, bada beste zenbait murriztapen, bai Mugimendu Partzialeko egituretan eta bai NZ-kopia egituretan eragina dutenak. Alde batetik bi kasuetan egitura hauetan ager daitezkeen aditzak, 'zubi' aditzen azpi multzo bat dira, 'uste' bezalako aditzak. Beste aldetik, mendeko perpausa denbora-menpe edo perpausa ez-jokatua denean bi egitura hauek ezinezkoak dira (18) adibideak erakusten duen bezala:⁹

- (18) Alemaneko adibidea (McDaniel 1989: 573)
- **Was will Hans wen Jakob besticht?*
 zer nahi Hans nor Jakob erosi
 'Nor nahi duzu Jakobek erostea?'

Hau azaltzeko zenbait argumentu proposatu izan dira literaturan konplementatzailearen izaerarekin loturik daudenak. Perpaus jokatuetan eta jokatugabeetan konplementatzaileak zehaztasun ezberdinak ditu: bigarrenaren kasuan Konplementatzailea [-denbora] delarik (McDaniel 1989, Frampton 1990). Horrela, polonieran edo errusieran Mugimendu Partzialeko galderak perpaus txertatu jokatuekin bakarrik agertzen dira. Galdera perpaus txertatu ez jokatutean sortzen denean mugimendu luzea posible da. Ezaugarri hau beheran agertzen da polonierako adibideekin:

⁹ Dena den, Simpsonnek (2000: 163) ondorengo adibidea ontzat ematen du, NZ-kopia egitura txertatutako perpausa denbora-menpekoa denean (i) baina ez Mugimendu Partzialeko egitura denean (ii):


- (i) *Wen willst du wen Jakob besticht?*
 nor nahi zuk nor Jakob erosi
 'Nor nahi duzu zuk Jakobek erostea?'
- (ii) **Was willst du wen Jakob besticht?*
 zer nahi zuk nor Jakob erosi
 'Nor nahi duzu Jakobek erostea?'

- (19) **Kto* *myśli* *Jan, że {kto} całuje* *Marie?*
 nor uste-3sg Jan -ela muxukatzen du Marie
 Lit: 'Nork uste du Janek muxukatzen duela Marie?'
- (20) *Jak* *myśli* *Jan, kto całuje* *Marie?*
 NZ- uste-3sg Jan nor muxukatzen du Marie
 Lit: 'Nola uste du Janek nor muxukatzen duela Marie?'
 'Nor uste du Janek muxukatzen duela Marie?'
- (21) *Kogo* *Jan chce* *całować {kogo}?*
 zer Jan nahi-3sg muxukatzea
 'Nor muxukatu nahi du Janek?'


(19) eta (20) adibideen arteko gramatikaltasun ezberdintasunak erakusten du mendeko perpausa jokatu denean NZ-hitzaren mugimendu osoa (19) ez dela posible eta Mugimendu Partziala (20) erabili behar dela. Perpaus txertatua ez jokatu denean berriz mugimendu osoak galdera gramatikal bat sortzen du (21).

Ikusi berri ditugun hizkuntza naturalen agertzen diren murriztapen hauek garrantzizkoak dira gero hurrek ekoizten dituzten ezohiko galderak aztertzerako garaian: ikusi izan da haur hizkuntzetan aurkitzen diren Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturek murriztapen berberak errespetatzen dituztela, adieraztera emanek hurrek ekoizten dituzten egitura hauek ez direla gauzatze akats hutsak baizik eta GU-ak eskaintzen dituen aukerak. Literaturan, NZ-besarkada adierazten duen elementuaren eta perpaus txertatuan agertzen den benetako NZ-hitzaren arteko erlazioak arreta handia jaso du. Orokorrean bi analisi proposatu izan dira: Zuzeneko Lotura Hurbilketa (ZLH) eta Zeharkako Lotura Hurbilketa (ZHLH).

ZLH-aren arabera zuzeneko erlazio bat dago NZ-besarkada ezartzen duen elementuaren eta perpaus txertatuan dagoen benetako NZ-hitzaren artean. Ikuspegi hau, besteak beste, Riemsdijk (1982), McDanielek (1989), Rizzik (1992) edo Müllerrek (1997) alemanerako, Maráczek (1989) eta Brodyk (1995) hungarierarako, edo eta Mahajanek (1990) hindierarako proposatu dute. Hauetako proposamen gehienetan NZ-besarkada ezartzen duen elementua NZ-espletibotzat hartzen dute. NZ-espletibo hau perpaus matrizean bateratzen da eta kate bat osatzen du mendeko esaldian dagoen NZ-hitzarekin, irudikapenaren mailaren batean, ondorengo adibidean irudikatu dugun bezala:

- (22) [NZ [nz-_i t_i]
- 

ZLH-aren barruan ere koka ditzakegu matrizean agertzen den NZ-hitza, NZ-tasunaren ageriko mugimenduaren ondorioz sortzen dela proposatzen duten analisiak. Ikuspegi hau Hiemstrak (1986) eta Chengek (1997, 2000) proposatu dute. Ikuspegi honen arabera Mugimendu Partzialeko galdera batek honako eratorpena izango luke:

- (23) [NZ [nz- t]
- 

(23) adibidean ikusten denez, NZ-hitza bere abiagunetik perpaus txertatuko KonpS-eko espezifikatzaile gunera mugitzen da, non ahoskatu egiten den. Gune horretatik NZ-hitza NZ-tasuna soilik matrizeko KonpS-eko espezifikatzaile gunera mugitzen da matrizeko besarkada ezarriaz, non 'zer' bezala ahoskatzen den. Zehazkiago, Hiemstrak (1986) frasieraz UL-ko NZ-galderak osatzeko hiru aukera ezberdinetan oinarritutako tasun mugimendua proposatzen du, jarraian doazen adibi-deetan ikus daitekeenez (Hiemstra 1986: 97):

1. ULko NZ-mugimendua osoa:

(24) *Wa tinke jo dat ik sjoen haw?*
nor uste zuk -ela nik ikusi dut
'Nor uste duzu nik ikusi dudala?'

2. ZER... NZ-:

(25) *Wat tinke jo wa't ik sjoen haw?*
zer uste zuk nor-ela-cl. nik ikusi dut
Lit: 'Zer uste duzu nor nik ikusi dudala?'
'Nor uste duzu ikusi dudala?'

3. NZ-kopia:

(26) *Wa tinke jo wa't ik sjoen haw?*
nor uste zuk nor-ela-cl. nik ikusi dut
Lit: 'Nor uste duzu nor nik ikusi dudala?'
'Nor uste duzu nik ikusi dudala?'

Hiemstrak proposatzen du zuzeneko erlazio bat dagoela matrizeko NZ-hitza-
ren eta mendeko KonpS-an agertzen den egiazko NZ-sintagmaren artean; ondorioz
haren analisia ZLH gisa har daiteke. Alabaina, Hiemstraren analisia NZ-galderaren
besarkada ezartzen duen elementua, NZ-hitza, ez da KonpS matrizean sortutako sin-
tagma espletibo bat bezala analizatzen. Berak proposatzen du NZ-sintagmen tasun
ezberdinak erakar daitezkeela UL-ko mugimenduetan, ZER ... NZ- eta NZ-kopia
galderetan aurkitutako aldeak eraginez. Hortaz, mugimendua ziklikoki, pausoka
ematen dela bere eginez, Hiemstrak honako aukera hauek proposatzen ditu hiru gal-
dera mota horientzat:

(27) Mugimendu aukerak frasierako UL, ZER ... NZ- eta NZ-kopia galderetan:

1. UL-ko NZ-mugimendu osoa: NZ tasunaren mugimendua, Φ tasunak eta matrize fonetikoaren oinarritzko gunetik mendeko KonpS-ren espezifikatzaile gunera mugitzen dira, eta hortik KonpS matrizea, non ahoskatu egiten baitira.
2. ZER ... NZ-: NZ-sintagma bere oinarritzko gunetik mendeko KonpS-ra mugitzen da. Hortik, NZ-tasuna soilik, matrize espezifikatzailearen gunera mugitzen da, non frasieraz *wat* bezala ahoskatzen baita. Mendeko espezifikatzailean dagoen NZ-hitza bestelako tasunak hantxe gelditzen dira, perpaus txertatuko KonpS espezifikatzailean, eta hantxe ahoskatzen dira.
3. NZ-kopia: aurreko egituretan bezala, aurreko mugimendu urratsak NZ-sintagma bere oinarritzko gunetik mendeko KonpS-ra erakartzen

du. Hala ere, NZ tasuna perpaus nagusiaren KonpS espezifikatzaile gu-nera mugitzen denean, Φ tasunak ere erakarriak dira, matrize fonetiko KonpS txertatuan utziz. Horrek NZ-kopia egitura eragiten du.

Ikusten denez, Hiemstrak proposaturiko analisiak bai ingelesean aurkitzen diren UL-ko egiturak, Mugimendu Partzialekoak eta bai NZ-kopiak azal ditzake.

Mugimendu Partzialeko analisisiekin jarraituaz, ondoren ikusiko dugu Chengek (2000) alemaneko ZER ... NZ- galderentzat proposatzen duen analisia. Chomskyren (1995)eko proposamena jarraituaz, Chengek NZ-mugimenduak bi urrats dituela proposatzen du: tasun mugimendua eta ondoriozko konpontze estrategia, kategoria mugitutako tasun multzora berriro ekartzen duena. Chengen arabera *was* NZ-hitzaren besarkada egiaz NZ-sintagmaren NZ tasunari dagokio, zeinek KonpS matrizeran elkarren segidako mugimendu ziklikoa egiten baitu, KonpS txertatu bakoitzean kopia bana utziaz. Gero, NZ-sintagmak (kategoria) mugitu egin behar du konpontze estrategia abiarazteko (kategoria tasun multzora berriro ekartzea). Berak proposatzen du ZER ... NZ- mugimendua ahalbidetzen duten alemanezko dialektok konpontze estrategia, tarteko [espez, KonpS]-etan gerta dadin ahalbidetzen dutela, non egiazko NZ-sintagma bezala ahoskatzen baita, tasun multzoa, berriz, KonpS matrizean *was* gisa gauzatzen delarik. Zehazkiago, NZ-mugimendu oso eta partzialerako ondorengo eratorpenak proposatzen ditu (Cheng 2000: 84tik egokitu-
tua):

1. NZ-mugimendu osoa:

$$(28) \left[{}_{\text{KonpS1}} \text{NZ} [\text{FF}] \dots \left[{}_{\text{KonpS2}} \text{NZ} [\text{FF}] \dots \left[{}_{\text{InfS}} \tau_{\text{nz}} \right] \right] \right]$$

kopia kopia

2. NZ-mugimendu partziala:

$$(29) \left[{}_{\text{KonpS1}} [\text{FF}] \dots \left[{}_{\text{KonpS2}} \text{NZ} [\text{FF}] \dots \left[{}_{\text{InfS}} \tau_{\text{nz}} \right] \right] \right]$$

kopia

(28) ereduan, tasun mugimenduak, ([FF]), matrizeran egiten du mailaka eta ziklikoki, KonpS2-n kopia bana utziz. Ondoren, kategoria mugimendua, (NZ), ematen da, kategoria mailaka eta ziklikoki igotzen delarik, mendeko KonpS bakoitzean kopia bana utziz. Konpontze estrategia KonpS1 matrizean ematen da, NZ-mugimendu osoa eraginez. Bestalde, (29) ereduan, tasun multzoak (28) ereduan bezala matrizerako bide osoa egiten duen arren, konpontze estrategia KonpS2-n ematen da, non kategoria eta tasun multzoa ahoskatzen baitira. Kasu horretan, tasun multzoari sakabanatuta egotea ahalbidetzen zaio, eta KonpS matrizean *was* bezala ahoskatzen da.

Ikus dezagun orain Mugimendu Partzialeko galderentzat proposaturiko bigarren analisiak —Zeharkako Loturaren Hurbilketak— ze nolako analisia proposatzen duen. Honen arabera, besarkada ezartzen duen NZ-sintagma ez da NZ-espletiboa, baizik eta banakoak baino proposizioak zenbatzen dituen argumentuzko NZ-sintagma bat. NZ-sintagma hori matrizeran mugitzen da alemana eta hungariera bezalako NZ-mugimenduko hizkuntzetan, eta leku berean gelditzen da india bezalako NZ- in situ hizkuntzetan. Beraz, ikuspegi honen arabera, matrizeko NZ-sintagmaren eta perpaus txertatuaren arteko erlazioa zeharkakoa da, matrizeko NZ-sintagmak zuzeneko erlazioa perpaus txertatu osoarekin ezartzen baitu, NZ-sintagmarekin baino.

ZhaLH-k NZ-mugimenduko hizkuntzen Mugimendu Partziala honela irudikatuko luke:

$$(30) \begin{array}{c} [NZ_{-j} \dots t_j \quad [nz_{-i} \dots t_i]] \\ \uparrow \qquad \qquad \qquad \uparrow \\ \text{---} \qquad \qquad \qquad \text{---} \end{array}$$

(30) adibideak erakusten duen bezala ZhLH-aren arabera mota honetako galderetan bi kate ezberdin sortzen dira, Zuzeneko Loturaren Hurbilketan ez bezala (ikus (22)), non kate bakar bat sortzen den.

Laburbilduaz, atal honetan ikusi dugu zenbait hizkuntza naturaletan ingelesean ematen den mugimendu osoko galdez gain beste aukera batzuk ere badaudela UL NZ-galderak sortzeko: Mugimendu Partziala eta NZ-kopia egiturak. Ikusi dugu bi egitura hauek ezaugarri bereziak dituztela, Bri-loturiko NZ-hitzak ez direla NZ-kopia egituretan agertzen eta perpaus txertatua jokatu gabea denean Mugimendu Partzialarik eta NZ-kopia egiturak ez direla posible. Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturei buruz egin diren proposamenak ere aurkeztu ditugu. ZLH-ren arabera erlazio zuzen bat dago matrizeko NZ-hitzaren eta mendeko NZ-hitzaren artean: horrela, Hiemstrak (1986) proposatzen duen analisiak bai mugimendu osoko, Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturak azaltzen ditu; Chengen (2000) analisiak berriz mugimendu osoko eta Mugimendu Partzialeko galderen eratorpena azaltzen du, NZ-kopiak alde batera utziaz. Azkenik ZhLH-k, Mugimendu Partzialeko egiturak azaltzeko proposatu izan da, bi NZ-hitzen arteko erlazioa zeharkakoa dela proposatuaz.

Ikus dezagun orain zer gertatzen den euskarazko UL NZ-galderekin.

UL NZ-galderak euskaraz

Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez bezalaxe, UL NZ- galderak egiteko NZ-hitzak mugimendu luze bat jasaten du bere jatorrizko gunetik mendeko perpausean, matrizeko KonpS-eko espezifikatzaile gunera. Mendeko KonpS-eko espezifikatzaile gune horretatik, beste hizkuntzatan bezala, NZ-hitza mailaka aurreratzen da matrizeko KonpS-ra, jarraian agertzen den adibidean ikus daitekeen bezala:

$$(31) \begin{array}{c} \text{Zer}_i \text{ uste duzu} [t'_i \text{ ikusi duela Mirenek } t_i] \\ \uparrow \qquad \qquad \qquad \uparrow \\ \text{---} \qquad \qquad \qquad \text{---} \end{array}$$

Euskaraz eta gaztelaniaz, ingelesez gertatzen ez den bezala, galdera matrizean NZ-hitzaren mugimenduari aditz osoaren mugidak jarraitzen dio.¹⁰ Hau da, NZ-hitza KonpS-ra igotzen denean aditz multzoa bere ondoan agertzen da:¹¹

(32) Zer **erosi du** Mirenek?

(33) *Qué ha comprado María?*
zer lag-3sg erosi-partiz. María
'Zer erosi du Mariak?'

(34) *What did Mary buy?*
zer lag-irag. Mary erosi
'Zer erosi zuen Maryk?'

¹⁰ Euskaraz eta gaztelaniaz aditz multzo osoa mugitzen den bezala, ingelesez aditz laguntzailea mugitzen da bakarrik.

¹¹ NZ-hitzaren eta aditz multzoaren arteko hurbiltasun hau azaltzeko ikuspegi ezberdinak, ikus besteak beste Ortiz de Urbina (1989), Laka eta Uriagereka (1987) eta Uriagereka (1999).

NZ-hitzaren eta aditz multzoaren arteko hurrenkera, mugimendua pausoka ematen denaren ebidentzi bezala hartu izan da. Dena den, aipatu behar dugu baldintza honek ere badituela zenbait salbuespen (Mitxelena 1981; Laka eta Uriagereka 1987; Uriagereka 1988, 1999; Ortiz de Urbina 1989, besteak beste). Adibidez, NZ-hitza *zergatik* bezalako adjuntu bat denean, subjektua NZ-hitzaren eta aditzaren artean ager daiteke, (35) adibidean erakusten den bezala:

(35) *Zergatik Mirenek ekarri du liburua?*

Aditzaren aurreramendua bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, ingelesean ez bezala, perpaus txertatua ere ematen da UL-ko galderetan eta matrizeko galderetan bezala aditz multzoak ere aurrera egiten du perpaus txertatuko ezker muturreraino, behean erakusten dugun bezala:

(36) Zer uste duzu [**erosi duela** Mirenek]?

(37) *Qué crees [que ha comprado María]?*
zer uste-2sg -ela du erosi-partiz. María
'Zer uste duzu erosi duela Mariak?'

(38) **What do you think [has Mary bought]?*
zer lag. zuk uste du Mary erosi-partiz
'Zer uste duzu erosi duela Maryak?'

NZ-galderetan aditzak hartzen duen posizioa V2 fenomenoaren adibidetzat jo izan arren, hau ez dago garbi Uriagerekak (1992, 1999) adierazten duen bezala, V2 fenomenoa perpaus matrizean eman ohi delako eta ez mendeko perpausetan euskaraz eta gaztelaniaz gertatzen den bezala. Uriagerekaren arabera NZ-hitzaren eta aditz multzoaren arteko hurrenkera, hau da, bata bestearen ondoan agertzea, agerikoa besterik ez da, bi elementuen artean isileko subjektua dagoelako. Torregok (1984), bestalde, aipatzen du gaztelaniaz NZ-hitzaren eta aditz multzoaren arteko hurbiltasuna bakarrik NZ-hitza igarotzen den perpausetan gertatzen dela. Honela, NZ-hitza matrizean sortzen bada, subjektua aditzaren aurrean ager daiteke mendeko perpausetan.

Adibidez (Torrego 1984: 110):

(39) *A quién prometió Juan [que Pedro se encargaría de [que -ri nor agindu-irag. Juan -ela Pedro kl. galdetu-subj. -ren -ela la gente sacara las entradas a tiempo?]]*
-a jende atera -ak sarrerak -iz garai
'Nori agindu zion Juanek Pedro arduratuko zela jendeak garaiz aterako zituela sarrerak?'

Euskaraz, alemanez eta frasieraz bezala galdera anitzetan NZ-hitz bat bakarrik mugi daiteke bigarrena bere tokian geldituaz. Baina, alemana eta frasieraz ez bezala euskarak ez ditu Mugimendu Partzialeko (40) edo NZ-kopia (41) egiturak onartzen, jarrian agertzen den bezala:

(40) * *Zer uste duzu nor etorriko dela gaur?*

(41) * *Nor uste duzu nor etorriko dela gaur?*

Esan behar dugu, orobat, euskarak baduela beste mugimendu aukera bat gaztelaniak eta ingelesak ez dutena. Besteak beste, Ortiz de Urbinak (1989) aipatzen duen bezala, zenbait 'zubi' aditzek honako mugimendua onartzen dute: mendeko esaldiko NZ-hitza, bere perpauseko, hau da, mendeko perpauseko, KonpS-era mugitzen da bakar bakarrik. Ondorioz, NZ-hitza perpaus txertatuko aditzaren aurrean agertzen da, matrizeko aditzaren aurrean agertu beharrean. Hau, ondorengo adibidean ikus daiteke (42) UL NZ-galdera arrunt batekin konparatuaz (43):

(42) [*Zer ikusi duela Mirenek*] *uste duzu?*

(43) *Zer [uste duzu] ikusi duela Mirenek?*

Ikusten den bezala, (42) adibidean NZ-hitza sortzen den perpaus txertatu osoa erakartzen da matrizerara, non aditzaren aurreko posizioa hartzen duen. Gogoratu NZ-hitza bakarrik mugitzen denean, (43) adibidean bezala, hurrenkera berbera gorde behar dutela NZ-hitzak eta perpaus nagusiko aditzak: bata bestearen ondoan egon behar dute. Bi kasuetan beste materialik ezin da bi elementuen (mugitutako elementuaren eta matrizeko aditzaren) artean agertu, (44) eta (45) adibideek erakusten duten bezala:

(44) **[Zer ikusi duela Mirenek] **Jonek** uste du?*

(45) **[Zer] **Jonek** uste du ikusi duela Mirenek ?*

Goiko bi adibideetan ikus daitekeenez, eta matrizeko perpausetan gertatzen den bezala, *Jonek* subjektua mugitutako elementuaren artean eta aditzaren artean agertzen bada, galdera ez gramatikala sortzen du.

UL NZ-galdereko adibideetan ikusten den bezala euskaraz mendekotasuna adierazteko mendeko perpauseko aditz laguntzaileari konplementatzaile bat atxikitzen zaio, *-ela* konplementatzailea zehazki:¹²

(46) a. *Nork uste duzu maite **duela** Miren?*

b. **Nork uste duzu maite du_ Miren?*

(47) a. *Nor uste duzu maite **duela** Mirenek?*

b. **Nor uste duzu maite du_ Mirenek?*

(48) a. *Zergatik uste dezu etorri **dela** berandu?*

b. **Zergatik uste dezu etorri da_ berandu?*

(49) *Anderrek uste du Begoña etorri **dela** berandu.*

Adibide hauetan ikusten denez, *-ela* konplementatzailea derrigorrezkoa da bai subjektuzko (46), objektuzko (47) eta adjuntuzko (48) galderetan eta baita ere baietzko perpausetan (49). Euskarazko NZ-galderen ezaugarri nagusienak azaldu on-

¹² KonpS-ren egiturari buruz proposamen bi daude euskaraz: ikerlari batzuen iritiz, Ortiz de Urbina (1989), Etxepare (1996), Albizu (1993) besteak beste Konp-en burua ezker aldean kokatzen da, beste euskarazko sintagmetan ez bezala; Uriagerekaren iritiz ordea, beste sintagmetan bezala eskuin aldean dago.

doren, jarraian zenbait hizkuntzako H1 gisako UL NZ-galderen jabekuntzan aurkituriko datuak azalduko ditugu.

UL NZ-galderen jabekuntzari buruz

UL NZ-galderen jabekuntzaren aitzindari Thornton (1990) dugu. Thorntonek H1 gisako ingelesaren jabekuntzari buruzko esperimendu sorta batean zenbait haurrek ingelesean aurkitzen ez diren egiturak ekoizten zituztela aurkitu zuen. Egitura hauek, Mugimendu Partzialeko eta NZ kopiak dira. Goian aurkeztu ditugun adibideak errepikatzen ditugu behean (50) eta (51) adibideetan (Thornton 1990: 213, 212):

(50) *What do you think who jumped over the can?*
 zer lag. zuk uste nor salto egin-iragan. gainetik det. potea
 Lit: 'Zer uste duzu nork egin zuela salto potearen gainetik?'

(51) *Who do you think who is in the box?*
 nor lag. zuk uste nor dago barruan det. kaxa
 Lit: 'Nor uste duzu nor dagoela kaxa barruan?'

Thornton-en esperimentuan parte hartu zuten 21 haurren adina 2;11tik 5;5-rakoa zen. Gainera bost pertsona helduen datuak bildu zituen kontrol modura. Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egituraz gain Thorntonek aztertu zituen haurretako batzuek *that* konplementatzailea agertzen zen ezohiko galderak ekoiztu zituzten (Thornton 1990: 213):

(52) *Who do you think that's in the box?*
 nor lag. zuk uste -ela dago barruan det. kaxa
 Lit: 'Nor uste duzu dagoela kaxa barruan?'

Ingelesez bada gertakari bat, *That-Aztarna Iragazkia* deritzona, non *that* konplementatzailea objektuzko eta adjuntuzko galderekin ager daitekeen baina ez subjektuzkoekin, behean ikusten den bezala:

(53) *Who do you think that the man saw?*
 nor lag. zuk uste -ela -a gizon ikusi-iragan.
 'Nor uste duzu gizonak ikusi zuela?'

(54) *Where do you think that he has seen the man?*
 non lag. zuk uste -ela bera-mask. du ikusi-partiz. -a gizon
 'Non uste duzu ikusi duela gizona?'

(55) **Who do you think that saw the man?*
 nor lag. zuk uste -ela ikusi-irag. -a gizon
 'Nor uste duzu ikusi zuela gizonak?'

Galdera hauek ekoiz-arazteko Thorntonek asmakizun joko bat erabili zuen haurrekin. Haurrek esperimendatzaile batek mugitzen zuen 'Ratty' izeneko panpin bati galderak egin behar zizkieten. Honela Thorntonek umeek subjektuzko, objektuzko eta adjuntuzko galderak ekoiztea lortu zuen. Behean, Thorntonek

erabilitako protokoloaren adibidea agertzen da (Thornton eta Crain 1998: 190-191):

(56) Subjektuzko galderak ekoiz-arazteko protokoloa:

<i>Esperimentatzailea</i>	(umeari xuxurlatuaz Rattyk entzun ez dezan) Guk bada-kigu gauza guztiak non dauden gordeta, ezta? Badakigu puztarri bat dagoela kutxan, hartz bat mantapean eta badakigu Grover jogurt potearen azpian dagoela. Ikus dezagun Rattyk asmatzen duen non gorde ditugun. Hasi-ko gara kutxarekin lehendabizi, ados? Guk badakigu puztarri bat dagoela kutxan, baina galdetu Rattyri berak zer usten duen.
<i>Haurra</i>	Zer uste duzu dagoela kutxan?
<i>Ratty</i>	Ea, mugitu kutxa nik entzun dezadan... Hmm, uste dut puztarri bat dagoela kutxan!
<i>Haurra</i>	Asmatu duzu!
<i>Esperimentatzailea</i>	Ongi, asmatu du. Egin dezagun mantapekoa orain ... (eta jokoak modu berean jarraitzen du)

Esperimentatzaileak haurrak galdera egin dezan erabiltzen duen egitura mendeko galdera bat da, non UL galdera agertzen ez den (*galdetu Rattyri berak zer uste duen...*). Modu honetan haurrari ez zaio UL galderak nola osatzen diren arrastorik ematen. Mugimendu Partzialeko eta NZ kopiak ekoizten zituzten haurren jarraipen batek erakutsi zuen galdera hauek honako bilakaera zutela:

1. Ezohiko (Mugimendu Partzialeko, NZ-kopiak eta *that* galderak) subjektuzko eta objektuzko galderetan agertzen dira.
2. Ezohiko galdera hauek objektuzko galderetatik desagertzen dira, baina subjektuzkoetan jarraitzen dute.
3. Ezohiko galderak erabat desagertzen dira.

Thortonek ikusi zuen Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopiak ekoizten zituzten haurretatik askok subjektuzko *that* galderak ere ekoizten zituztela. Hau azaltzeko Thornton-ek proposatu zuen subjektuzko *that* galderetan eta NZ-kopia egituretan haurrek GU-ak onartzen duen Kategoria Isilen Hatsarrea (KIH) errespetatzearen egiten zutela.¹³ Thornton, Rizziren (1990) KIH-ren analisisian oinarritu zen, proposatuaz NZ- kopiaren agertzen zen NZ-hitza eta subjektuzko *that* konplementatzailea perpaus txertatuko KonpS-an agertzen den konplementatzailearen ahoskapena zirela. Thorntonen analisisian bai NZ kopia eta bai *that* konplementatzailea haurrek komunztadura duten konplementatzailetzat jotzeak sortzen zituen. Helduen hizkuntzan ordea, UL NZ-galderetan komunztadura duen konplementatzailea isileko konplementatzailea da. Ikusten den bezala, Mugimendu Partzialeko galderak Thornton-ek proposatzen duen analisitik at gelditzen dira. Hauek, McDaniel (1989) jarraituaz, Thornton-ek ez ditu Mugimendu Luzeko egituratzat jotzen.

¹³ Oso laburki, KIH-ak elementu huts edo ixil batek baldintza zehatz batzuk (egoki gobernaturik gotea) bete behar dituela esaten digu. Ikus Lasnik eta Saito (1984), Chomsky (1986) besteak beste.

Laburbilduaz, Thorntonek proposatzen duen analisia ezohiko galderentzat 1 Taulan irudikatzen dugu:

Galdera mota	Egitura	Deskribapena
Mugimendu Partzialeko Galderak	$[_{\text{KonpS2}} \text{ZER} \dots [_{\text{KonpS1}} \text{nor}_i \dots \dots t_i \dots]]$	Mugimendu partziala
NZ-kopiak	$[_{\text{KonpS2}} \text{Nor} \dots [_{\text{KonpS1}} t_i [_{\text{Konp}} \text{nor}_{\text{komunzt.}} [_{\text{IP}} t_i \text{etorri zen}]]]]$	Urrentasun luzeko mugimendua

1 Taula

Thorntonen (1990) analisia

Thorntonen analisisan NZ-hitza bere sorlekutik matrizeko KonpS-ra bidean mendeko KonpS-tik igarotzen da, non konplementatzailearekin komunitadura harreman bat sortzen duen eta hau NZ-hitzaaren itsura berbera duen konplementatzaile baten bidez haurrak gauzatzen duen. Beraz analisi honen arabera haurrek perpaus txertatua *that* edo NZ-hitzaaren kopia bat gauzatzen dutenean KIH eusteko egiten dute.

Mendeko konplementatzailearen izaera

Mendeko perpausuan agertzen den NZ-kopia konplementatzailea dela eta ez KonpS-an ahoskaturiko NZ-aztarna argudiatzeko Thorntonek honako ebidentziak erabiltzen ditu: hasteko, Thorntonek ez zituen aurkitu bere datuetan perpaus txertatua subjektuaren eta aditz laguntzailearen arteko inbertsiorik. Honelako inbertsioak daudenean aditz laguntzailea konplementatzaile burura mugitzen denez, inbertsio ezak NZ-kopiak konplementatzaile buruaren gunea betetzen duela esan nahi du Thorntontentzat. Bestalde, mendeko NZ-hitzaaren izaerari begira, Thorntonen datuetan NZ-hitza hau beti NZ-hitza soila zen, inoiz ez Bri-loturikoa. Beraz, Thorntonen arabera Bri-loturiko NZ-hitza ez agertzearen arrazoa da Bri-loturiko NZ-hitza ezin dutela konplementatzailearen, alegia, buru baten gunea bete. Beraz, honek ere mendeko NZ-hitza buru gunea betetzen zuela adierazten zuen.

Amaitzeko, Thorntonek bere datuetan aurkitutako ezohiko galderak GU-ren isla direla ondorioztatu zuen, egitura hauek beste zenbait hizkuntza naturaletan agertzen baitira, hizkuntza hauetan jarraitzen dituzten murriztapen berberak mantenduaz haur hizkuntzan eta gainera haurrek entzuten duten inpuetan agertzen ez diren egiturak direlako. Van Kampenek (1997) ere H1 gisako nederlanderaren jabekuntza ezohiko galdera mota berberak aurkitu zituen eta Thorntonekin batera ondorioztatu zuen perpaus txertatuko NZ-kopia konplementatzaile bat zela eta egitura hauek haurrek Forma Fonetikoaren (FF) eta Forma Logikoaren (FL) arteko ezberdintasuna murrizteko duten preferentzia erakusten dutela.

Esan bezala, Thorntonek aurkitu zituen ezohiko galderek, alemanezko eta frisie-rako Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopiek dituzten bi ezaugarri betetzen dituzte (ikus (116)-(18) adibideak). Hasteko, Thorntonek aurkitu zuen, NZ-galdera Bri-

loturikoa zenean, *zein mutil bezalako kasuetan*, haurrek ez zutela inoiz NZ-kopien egitura erabiltzen. Bri-loturiko kasuetan haurrek honako egiturak ekoizten zituzten (Thornton 1990: 245, 246):

- (57) *Which Smurf do you think is holding a toothbrush?*
zein pottoki lag. zuk uste dago heltzen bat hortzetako eskuila
'Zein pottoki uste duzu dagoela hortzetako eskuila bat heltzen?'
- (58) *What do you think which Smurf really has roller skates?*
zer lag. zuk uste zein pottoki benetan dauzka patinak
'Zein pottokik uste duzu dagoela hortzetako eskuila bat heltzen?'
- (59) *Which Smurf do you think who has roller skates on?*
zein pottoki lag. zuk uste nor dauzka patinak jantzita
'Zein pottoki uste duzu dagoela hortzetako eskuila bat heltzen?'

Ikus daitekeenez, (57) adibidea helduen moduko galdera bat da, (58) berriz Mugimendu Partzialeko galdera bat eta azkenik (59), alemanez ere posible den galdera mota da, non Bri-loturiko NZ-hitzaren kopia baten ordezkari matrizean agertzen den NZ-hitzarekin pertsona komunztadura duen NZ-hitz soil bat agertzen den.

Bigarren ezaugarriari buruz, haurrek ez dituzte ezohiko galdera hauek ekoizten perpaus txertatua ez jokatu denean. Hau da, Thorntonek bere esperimentuan ez zituen behean agertzen den galderaren moduko adibiderik aurkitu (Thornton 1990: 213):

- (60) **Who do you want who to eat the pizza?*
nor lag. zuk nahi nor inf. jan -a pizza
Lit: 'Nor nahi duzu nor pizza jatea?'
'Nor nahi duzu pizza jatea?'

Rizzi (1990) oinarri hartuta, bai Thorntonek (1990) eta bai van Kampenek (1997) perpaus txertatua agertzen den NZ-hitza komunztadura duen konplementatzaileatza jotzen dute. Beraz bi ikerlari hauentzako NZ-kopia egituren eza perpaus ez jokatueta konplementatzailearen [-denbora] tasunak erabakitzen du, zenek espezifikatzailearen eta buruaren arteko komunztadura behaztopatzen baituen. Thorntonek (1990) adierazten duen bezala haurren galderetan, perpaus txertatua ez jokatu denean NZ-hitzik ez agertzeak goian ikusi ditugun polonierako datuekin bat dator (ikus (19)-(21)).

Ezaugarri hauek guztiak kontuan hartuta Thorntonek haurrek GU eskura zutela ondorioztatu zuen. Alde batetik haur hauek ekoizten zituzten galderak beste hizkuntza naturaletan posible direlako eta bestalde, egitura hauek ez daudelako haurrek inguruan entzuten duten inputean, hau da, egitura hauek ez dira ingelesean agertzen. Gainera de Villiers et al. (1990) eta McDaniel et al.-ek (1995) aurkitu zuten bezala, haurrek perpaus txertatua NZ-hitz bat duten galderak ekoizteaz gain, honelako egiturak interpretatzeko gai ere badira.

Ezohiko galdera hauek gauzatze akats hutsak direlako kritikari behin eta berriro egin behar zaio aurre. Dena den, Thorntonek eginiko azterketan argi utzi zuen ez ohizko galdera hauek ez dituztela gauzatze akatsen ezaugarriarik. Alde batetik galdera hauek gauzatze akatsak balira perpaus txertatua ez jokatu denean ere espero beharko

genituzke, baina berak erakutsi zuen bezala eta ikusi berri dugun bezala (60), hau ez da horrela. Gauzatze akatsen beste ezaugarri bat, Thorntonen datuetan aurkitu ez dena, hauek normalean sesioaren hasieran edo amaieran agertzen direla da. Thorntonek ere aztertu zuen ea ez ohizko galdera hauek esaldi luzeagotan maizago agertzen ziren edo ez. Horretarako perpaus luzeagoak ekoiz-arazi zizkien haurrei, *really* aditz laguna erabiliaz matrizeko aditzaren eta mendeko KonpS-aren artean (Thornton 1990: 332):

- (61) *What do you think really really really really really what's in there?*
 zer lag. zuk uste bene bene bene bene benetan zer-dago -n hor
 Lit.: 'Zer uste duzu bene bene bene bene benetan zer dagoela hor?'

Emaitzek erakutsi zuten ezohiko galderak ez zutela perpausaren luzerarekin zeri-rikusirik. Thorntonek berak ere onartzen du normalean haur gazteenek gauzatze akatsak maizago egiten dituztela. Baina bere datuetan aurkitu zuen haur zaharrenek ere ezohiko galderak ekoizten zituztela. Askotan gauzatze akatsak memoriaren zama-lana gehitzen denean gertatzen dira, eta normalean kasu hauetan gertatzen dena zera da, haurrak zenbait hitz ez dituela esaten, hau da, laburtu egiten duela bere esaldia. Baina ikusi dugun bezala Thorntonek aztertu zituen haurrek egiten dutena alderantzizkoa da: elementu gehiago sartzen dituzte esaldietan.

Gainera, ezohiko galdera hauek gauzatze akatsak balira gehiagotan agertuko lirateke objektuzko galderetan. Gogoratu behar da objektuzko galderetan NZ-hitzak uzten duen hutsunea subjektuzko galderek uzten dutena baino urrutiago agertzen dela. Baina ikusi dugun bezala Thorntonen datuetan subjektuzko galderetan ezohiko galdera gehiago agertzen ziren eta epe luzeagoaz gainera, hau da, objektuzkoetan desagertu ondoren.

Ezohiko galdera hauen aurrean ere esan ohi da hauek jarraian ekoiztutako bi perpaus nagusi direla. Baina Thorntonek argi uzten du hau ez dela horrela perpaus txertatuko inbertsioei begiratuaz. Thorntonek argudiatu zuen, haurrentzako NZ-kopia egiturak bi matrizeko perpausak balira, orduan bi perpausetan agertuko litzakeela laguntzailearen eta subjektuaren arteko inbertsioa eta ez bakarrik lehenengo perpausaren. Bere datuetan ez dago inoiz inbertsiorik bigarren perpaus horretan. Hau da, behean agertzen den bezalako galderak ez dira Thorntonen datuetan agertzen (Thornton 1990: 242):

- (62) *What do you think? What does Cookie Monster like?*
 zer lag. zuk uste zer lag. Galleta Munstroa gustatu
 'Zer uste duzu? Zer gustatzen zaio Galleta Munstroari?'

Esan behar dugu gainera H1 ingelesaz gain, mota berdineko ezohiko galderak ere beste H1 hizkuntzatan aurkitu direla: nederlanderan (van Kampen 1997), frantsesez (Oiry 2002, Jakubowicz 2004) eta gaztelaniaz (Gutierrez 2005). Van Kampenek esate baterako, bere bi gaiek jarraian agertzen diren bezalako galderak ekoizten zituztela aurkitu zuen (van Kampen 1997: 140):

- (63) *Bij welk meisje denk je wie ik ga logeren?*
 -rekin zein neska uste zuk nor nik joan egon
 'Zein neskekin uste duzu egongo naizela?'

- (64) *Waarom denk je waarom ik op zwemles zit?*
 zergatik uste zuk zergatik nik gainean igeriketa klaseak nago
 'Zergatik uste duzu zergatik ni igeriketa klaseetara joaten naizela?'

(63) adibideak Bri-loturiko NZ galdera bat erakusten du, non NZ-hitz konplexua matrizean ahoskatzen den eta NZ-kopia soil bat perpaus txertatuko KonpS-an agertzen den. (64) adibidean berriz, NZ-kopia egitura NZ-hitz soilekin bakarrik agertzen dela erakusten da. Frantsesari begiratuaz, Oiryk (2000) honako adibideak aurkitu zituen:

- (65) *Tu crois quoi qui est caché dans le sac?*
 zuk uste zer -ela/zein dago gordeta barruan -a zaku
 Lit: 'Uste duzu zer dagoela zakuan gordeta?'

(65) galderan Mugimendu Partzialeko egitura bat agertzen da, non matrizeko besarkadura adierazten duen NZ hitza isilekoa den. Erantzun beharreko NZ-hitza berriz mendeko KonpS-an agertzen da, *qui* konplementatzailearen aurretik.

Gaztelaniaz ere antzeko galderak aurkitu izan dira. Denboran zehar eginiko ikerketa batean Gutierrezek (2006: 252) honako galderak aurkitu zituen:

- (66) *Tú qué crees cómo ha hecho el castillo?* (M. 5;5)
 zuk zer uste-2sg nola du egin -a gaztelu
 Lit: 'Zer uste duzu nola egin du gaztelua?'
 'Nola uste duzu egin duela gaztelua?'

- (67) *Dónde crees dónde ha ido el niño?* (M. 5;7)
 non uste-2sg non da joan -a haur
 Lit: 'Nora uste duzu nora joan da haurra?'
 'Nora uste duzu joan dela haurra?'

(66) adibidean Mugimendu Partzialeko galdera bat agertzen da eta (67) galderan berriz NZ-kopia egitura. Galdera hauerz gain, beste galdera hauek aurkitu ziren H1 gaztelaniazko datuetan (Gutierrez 2006: 269):

- (68) *Tú crees dónde fue el niño?* (M. 4;10)
 zuk uste-2sg nora joan-irag. -a haur
 Lit: 'Zuk uste duzu nora joan zen haurra?'
 'Nora uste duzu joan zela haurra?'

- (69) *Tú qué crees que a quién le besó?* (M. 5;9)
 zuk zer uste-2sg -ela -ri nor cl. muxu eman-irag.
 Lit: 'Zuk zer uste duzu nori eman ziola muxu?'
 'Nori uste duzu eman ziola muxu?'

- (70) *Dónde crees que dónde ha ido el señor?* (M. 5;7)
 nora uste-2sg -ela nora da joan -a gizona
 Lit: 'Nora uste duzu nora joan dela gizona?'
 'Nora uste duzu joan dela gizona?'

(68) adibidean, frantsesean aurkitu den antzeko galdera agertzen da, non matrizeko besarkadura ezartzen duen NZ-hitza isilekoa den. (69) adibidean berriz, Mu-

gimendu Partzialeko galdera bat daukagu non mendeko NZ-hitzaren aurretik *que* konplementatzailea agertzen den, (70) adibidean bezala, NZ-kopia egiturarekin.

H1 gisako euskararen NZ-galderen jabekuntzari begiratuaz Barreña (1995) dugu aitzindari. Modu espontaneoan bildutako datuetan matrizeko NZ-galderen bilakaera aztertu ondoren Barreñak aurkitu zuen hurrek beti gordetzen zutela NZ-hitzaren eta aditzaren arteko hurrenkera (Barreña 1995: 154):

- (71) a. *Hau nok ipini dau?* (O. 2;04;24)
 b. *Nok apurtu dau holakue?* (O. 2;04; 24)
 c. *Nun daoz nire egurrek?* (O. 2;06;05)

Hurrenkera hau mantentzen ez den kasuetan, eta helduen hizkuntzan gertatzen den bezala, *zergatik* bezalako adjuntuzko galderetan gertatzen da (Barreña 1995: 154, 162):

- (72) a. *Zeatik honek jo ein bi dau trena?* (O. 2;08;13)
 b. *Zegatik Arantzan zalduna bota dozu?* (O. 3;01;12)
 c. *Zegatik azeriek untxie jaten dabie?* (O. 3;09;11)

Perpau txertatuetan gertatzen denari begiratuaz, datuak urriagoak dira, Barreñak aztertu zituen haurren adina dela eta. Bildutako datuetan Barreñak hurrek gehiengotan isileko *pro* erabiltzen zuten subjektu, objektu zuzena eta zehar objektuak adierazteko, beraz ezin garbi ikusi aditza Konp-era igo den ala ez:

- (73) a. *Andoni, ikusi zer ein doten!* (M. 3;07;27)¹⁴
 b. *Aititek esango ozta zelan eiten dan* (M. 3;11;17)

Dena den, badaude Barreñaren datuetan subjektua IS moduan ahoskatzen deneko zenbait adibide. Kasu hauetan subjektua beti aditzaren ondoren agertzen da, beheko adibideetan ikus daitekeen bezala:

- (74) a. *Nik badakit zelan izaten diezen barkuek* (O. 3;03;25)
 b. *Begira nola mugitzen den hau!* (P. 3;02;14)
 c. *Ez dakizu nun bizitzen diren azeriek?* (M. 3;04;12)

Ikusi dugun bezala, euskaraz mendekotasuna adierazteko aditzak edo aditz laguntzaileak *-ela* konplementatzaile berezia hartzen du ((46)-(49)). Jabekuntzako datuei begiratuaz, Barreñak hurrek aldakortasuna erakusten zutela aurkitu zuen, konplementatzaile gabeko eta konplementatzailedun esaldiak ekoiztuaz. Ikusi berri dugun legez, UL NZ-galderen H1 gisako jabekuntzan hainbat hizkuntzatan bai Mugimendu Partzialeko eta bai NZ-kopia egiturak aurkitu dira. Nahiz eta euskararen H1 gisako NZ-galderei buruzko datuak ikertuak izan diren (Barreña 1995), UL NZ-galderei buruzkoen berri jarraian emango dugu, egitura hauek ekoiz-arazteko erabili dugun esperimentuarekin hasiaz.

Esperimentua

Atal honetan UL NZ-galderak ekoizteko erabili den esperimentua aurkeztuko dugu. Gure gaia, esperimentuaren hasieran 5;1-eko adina zuen Axel izeneko mu-

¹⁴ Adibide hauek Barreñarengandik (1995: 163) daude hartuta.

tiko bat da. Axelek euskaraz soilik hitzegiten du gurasoekin eta D eredia jarraitzen du Andoaingo Aita Larramendi ikastolan 3 urte zituenetik. Haurra hiru astetik behin grabatua izan da urte bete eta zortzi hilabetez.

Diseinua eta prozedura

Axelen UL NZ-galderen ekoizpenerako erabili den esperimntua Thorntonek (1990) erabilitako esperimntuan dago oinarritua eta bai H1 gaztelaniarako (Gutierrez 2006) eta bai H2 ingeleserako (Gutierrez 2005) erabilia izan den esperimntu berbera da. Esperimntu honetan, gaia UL NZ-galderak egitera behartzen duen egoera bat sortzen da. Hau lortzeko, eta Thorntonen ideia mantenduaz, gaia asmakizun joko batera jolasten da esperimntatzailearekin. Gure asmakizun jokoan, gaiak aurkezten zaizkion bi argazkietatik bat aukeratu behar du. Esperimntatzaileak gaiak aukeratutako argazkia zein den asmatzen badu, esperimntatzaileak puntu bat irabazten du baina asmatzen ez badu, orduan gaiak lortzen du puntua. Jokoaren amaieran puntu gehien lortu duenak irabazten du partida. Ikus I Eranskina erabilitako materialen adibide bat ikusteko.

Lehenengo aldiz jokia hasi aurretik esperimntatzaileak nola jolasten den erakusten dio gaiari. Gero sesio horretarako material guztiak gaiaren aurrean jartzen dira, norik nahi duen argazkia aukeratzen duen banan bana. Galdera bakoitza ekoizteko materiala gutun azal gardenetan gordetzen da. Gutun azal hauetan kolore biziko kartulina ikus daitezke eta gaiak hauetatik bat aukeratzen duenean, barruan agertzen diren beste bi argazki txikiagoak ateratzen dira, kolorezko kartulina agertzen den argazki nagusiarekin batera mahai gainean jarriaz. Kartulina nagusian agertzen den argazkian galdera ekoizteko tema agertzen da, adibidez haurrak ezagutzen duen marrazki bizidunetako pertsonaien bat, ekintza bat eginez edo galdera sortzeko informazioa erakutsiaz. Beste bi argazkietan bi aukera ezberdin agertzen dira pertsonaien jokabidea azaltzeko. Hauek denak esperimntatzaileak gaiari deskribatu ondoren esperimntatzaileak bi argazki txikietatik bat aukeratzeko eskatzen dio. Gaiak zein aukeratu pentsatzen duen bitartean esperimntatzaileak begiak ixten ditu ez ikusteko. Gaiak argazkitxoetako bat aukeratzen duenean kartulina handiaren aurrean jartzen du buelta emanda eta behera begira beste argazkitxo kartulinaren azpian gordetzen duen bitartean. Haurra prest dagoenean eta esperimntatzaileak begiak itxirik dauzkala, galdera egiteko eskatzen zaio.

Teknika hau erabiliaz subjektuzko, objektuzko eta adjuntuzko UL NZ-galderak ekoiz-arazi genituen, bai *zer* bezalako NZ-hitz soilak eta bai *zein liburu* Bri-loturikoak lortzeko. Joko bera perpaus txertatu jokatuak nahiz eta perpaus jokatugabeak ekoizteko erabili genuen. Ekoizturiko galdera moten adibideak behean agertzen dira:

(75) Ekoiztu beharreko galderen adibideak:

- a. *Nor uste duzu bizi dela etxe honetan?* (jokatua, subjektua, NZ-hitz soilak)
- b. *Zer uste duzu ikusi zutela?* (jokatua, objektua, NZ-hitz soilak)
- c. *Nola uste duzu jan zuela bazkaria?* (jokatua, adjuntua, NZ-hitz soilak)
- d. *Zein neska uste duzu erosi zuela landara hau?* (jokatua, subjektua, Bri-loturiko NZ-hitzak)
- e. *Zein kotxe uste duzu erosi zuela?* (jokatua, objektua, Bri-loturikoa)

- f. *Zein ordutan uste duzu joan zirela hondartzara?* (jokatua, adjuntua, Bri-loturikoa)
 g. *Nork nahi duzu helatua jatea?* (jokatu-gabea, subjektua, NZ-hitz soila)
 h. *Zer nahi duzu jatea?* (jokatu-gabea, objektua, NZ-hitz soila)
 i. *Nora nahi duzu gidatzea?* (jokatu-gabea, adjuntua, NZ-hitz soila)

Jarraian galdera hauek ekoizteko erabilitako protokoloaren adibide bat agertzen da. Ikus 1 Eranskina galdera honi dagozkion materialak ikusteko:

(76) *Subjektuzko galdera bat ekoizteko erabilitako protokoloa:*

Esperimentatzailea Begira hemen pastel bat daukagu (kartulinaran agertzen den argazkia erakutsiaz) eta baita ere gizon bat eta neska bat (bi argazki txikiak erakutsiaz). Bai? Orain zuk aukeratu nork egin zuen pastela.

(esperimentatzaileak karpeta bat jartzen du bere aurrean gaiak aukeratzen duen argazkia ikus ez dezan. Behin gaiak argazkia aukeratzen duenean buelta ematen dio behera begira eta bestea, aukeratu ez duena, azpian gordetzen du)

Esperimentatzailea Prest?

Gaia Bai

Esperimentatzailea *Galdetu iazu zenek uste dudan egin zuela pastela*

Gaia *Zenek uste duzu egin zuela pastela?*

Esperimentatzailea (oraindik begiak itxirik dauzkala) gizonak.

Gaia Ez.

Esperimentatzailea Oso ondo, zuk irabazi duzu, beraz zuretzat puntua. Orain aukeratu beste bat.

Ikus daitekeen bezala esperimentatzaileak galdera ekoiz-arazteko erabiltzen duen sarrean, *Galdetu iazu zein uste dudan bizi dela etxe honetan*, haurrak ekoiztu behar duen galdera osoa agertzen da. Hau eginez bagenekien subjektuari UL NZ-galderak osatzeko moduari buruzko informazio osoa ematen ari gintzaiola. Dena den, arrazoitu genuen haurrak informazio hau alde batera utzi eta ezohiko galderak osatuko balitu, orduan ekoizpen horiek garbi erakutsiko luketela haurrak euren galdera propioak sortzen ari direla. Sarrera osoak, halaber, parte-hartzailei UL-ko NZ-galderak eraikitzen laguntzen zien.


Emaizak

Emaizak erakutsi zuten Axelek ez zituela helduek bezalako UL-ko NZ-galderak ekoizten. Hasierako sesioetako galdera guzti guztiak Mugimendu Partzialeko egiturak ziren. Hirugarren sesiotik aurrera NZ-kopia egiturak ekoizten hasi zen eta grabatutako azkeneko sesioan, lehenengo sesiotik 17 hilabete beranduago ere Axelen galdera gehienak ezohikoak ziren.

Axelek denera 192 galdera ekoiztu zituen, modu honetara sailkatuta: 44/192 (%22,9) subjektuzko galdera jokatuak, 78/192 (%40,6) objektuzko galdera jokatuak, 45/192 (%23,4) adjuntuzko galdera jokatuak, 3/192 (%1,5) subjektuzko galdera jokatu gabeak, 14/192 (%7,2) objektuzko galdera jokatu gabeak, 2/192 (%1) adjuntuzko galdera jokatu gabeak eta 6/192 (%3) mendekotasun bikoitzezko galderak.

NZ-hitzei dagokionez, jokaturiko galderetan, subjektuzkoetan %34, objektuzkoetan %32 eta adjuntuzkoetan %6,6 Bri-loturikoak izanik.

Axelen galdera jokatuena motei begiratuaz honako sailkapen hau agertzen da:



1 Irudia

Axelen UL-ko NZ-galdera jokatuena bilakaera¹⁵

Ezohiko galdera mota hauen adibide bana agertzen da behean:

A. M(ugimendu) P(artziala):

(77) *Zer uste duzu zenek in zun pastela?* (A. 5;1)

HELBURUA: Zenek uste duzu egin zuela pastela?

B. NZ-kopia:

(78) *Nola uste dezu nola jan zuela?* (A. 5;6)

HELBURUA: Nola uste duzu jan zuela?

C. Bestelakoak:

(79) *Nun uste dezu zein tokitan busti zirela?* (A. 6;9)

HELBURUA: Zein tokitan uste duzu busti zirela?

(80) *Zein uste dezu ze kotxe erosi zuela?* (A. 5;6)

HELBURUA: Ze kotxe uste duzu erosi zuela?

(81) *Zein gizon uste duzu zenek gidatu zuen traktorea?* (A. 5;2)

HELBURUA: Zein gizonak uste duzu gidatu zuela traktorea?

(82) *Nor uste dezu noren gaztelua dela?* (A. 6,9)

HELBURUA: Noren gaztelua uste duzu dela?


1 Irudian ikusten den bezala, Axelek lehenengo sesioan Mugimendu Partzialeko galderak soilik ekoizten ditu, galdera mota hau izanik Axelek erabiltzen duena gehienbat hirugarren sesiorate, hiru hilabete beranduago. Laugarren sesiotik aurrera NZ-

¹⁵ Sailkapen honetatik kanpo utzi ditugu zer NZ-hitzeekin eginiko Mugimendu Partzialeko galderak, (i) modukoak, hauek bai Mugimendu Partzialeko galderatzat edo eta NZ-kopia egituratzat har ditezkeelako. Axelek honelako 25/198 (%12.6) galdera ekoiztu zituen.

(i) *Zer uste dezu ze jan duela umetxoak?* (A. 5;1)

kopia egitura azaltzen da Axelen ekoizpenean eta honek garrantzia hartzen du Axelek 6 urte dituen bitartean. Ordutik aurrera, bestelako galderak bezala sailkatutako galderak ekoizten hasten da. Goiko C adibideetan ikusten den bezala, 'bestelako' galdera hauen ezaugarri nagusia da matrizeko besarkada ezartzen duen NZ hitza, ez mugimendu partzialean agertzen den *zer* eta *ez* eta NZ-kopia ere ez dela. Galdera mota hauetan bestelako NZ-hitza bat agertzen da, askotan perpaua txertatuta agertzen den NZ-hitza daraman tasun berbera erakusten duena, (79) adibidean 'tokia' tasuna, esaterako.


Axelen UL NZ-galderetako konplementatzailearen erabilerrari buruz, esan behar dugu galdera guztiek ez dutela derrigorrezko konplementatzailea erakusten, goiko (79) eta (81) adibideetan ikusten den bezala. Axelen konplementatzailearen erabilerrari begiratuaz denboran zehar honako irudia agertzen zaigu:



2 Irudia

Axelen UL-ko NZ-galderak konplementatzailearen ekoizpenaren arabera

2 irudian ikusten den bezala Axelen hasierako galdera gehienek ez dute konplementatzailearik. Eta konplementatzailearen bat agertzen denean hau ere askotan ez da helduen hizkuntzan egokia den konplementatzailea. Axelen konplementatzaile egokiaren erabilera beheko 3 Irudian agertzen da:



3 Irudia

Konplementatzaile egokiaren ekoizpena

3 Irudian ikusten den bezala lehenengo lau sesiotan Axelek ez du beti zuzeneko konplementatzailea erabiltzen. Bosgarren sesiotik aurrera berriz konplementatzailea erabiltzen duen gehienetan konplementatzaile zuzena erabiltzen du. Dagokion konplementatzailea agertzen ez denean honakoak erabiltzen ditu Axelek bere UL NZ-galderetan:


(83) Zer uste dezu zergatik bildurtu **dan** gizona? (A. 5;1)

(84) Zeatik uste dezu zeatik dagon **pozik**? (A. 5;9)

(85) Zein uste dezu zein jan **duna**? (A. 5;6)

Ikus daitekeenez, Axelek erabiltzen duen konplementatzailea helduen euskarazko konplementatzailea da, baina beste egoeratan erabiltzen dena: beteak beste, zehar galderetan eta erlatibozko perpausetan erabiltzen den *-(e)n* konplementatzailea (83), (84) eta (85) adibideetan ikusten den bezala.

Ikus dezagun orain Axelen ezohiko galderen sailkapena galdera motari begira:



4 Irudia

Axelen galdera jokatuak galdera moten arabera¹⁶

4 Irudiak erakusten duen bezala Axelen ezohiko galderak bai subjektuzko, bai objektuzko eta bai adjuntuzko galderetan agertzen dira. Ezberdintasun bakarra agian subjektuzko galderetan 'bestelakoak' bezala sailkatu ditugun galderak nabarmentzen direla da.

Menpeko perpausoko aditza jokatu gabea deneko galderari begiratuaz, beste hizkuntzen jabekuntzan aurkitu izan den bezalaxe, Axelen 19 galderetako bat berak ere ez du bi NZ-hitzeiko egiturarik erakusten. Hona hemen zenbait adibide:

(86) Zenek erabaki zuen helatua jatea? (A. 6;5)

(87) Ze kotxe nahi dezu gizonak eramatea? (A. 5;6)

(88) Zenek atzetik erabaki du joatea? (A. 6;2)

¹⁶ Kontuan hartu behar da sailkapen honetan «zer ... zer...» motatako galderak sailkapenetik kanpo utzi ditugula goian aipaturiko arrazoiarengatik. Beraz, Mugimendu Partzialeko objektuzko galdera guztiak, *nora* NZ-hitza edo Bri-loturiko *zein kotxe* bezalako galderak dira. Kanpoan utzitako galderak objektuzko galderen kopuru osoaren 35,8% dira.

Aipatu behar dugu, dena den, Axelen hasierako galderetan jokatu gabeko perpausak ez direla erabat helduek egiten dituzten perpausak bezalakoak, behean ikus daitekeen bezala:

(89) Zer dao poltsan egotea? (A. 5;2)
HELBURUA: Zer nahi duzu poltsan egotea?

(90) Nola umeak nahi dezu jan? (A. 5;2)
HELBURUA: Nola nahi duzu umeak jatea?

Azkenik, Axeli hirugarren motatako galdera sorta bat ekoiz-arazi genion. Galdera hauek mendekotasun bikoitzeko galderak dira, hau da, NZ-hitza matritzetik bi perpaus beherago sortzen diren galderak. Hona hemen adibide bat:

(91) [[[Nora_i uste duzu] esan dizula] joan zela t_i ?]]]

Adibidean ikus daitekeenez, *nora* NZ-hitza bi perpaus beherago dagoen perpaus sortzen da, hau da, *nora joan den* galdetzen duen galdera bat da. Esan behar dugu mota honetako 6 galdera ekoiztu zituela Axelek denera. Sei galdera hauetatik batek, jarrian erakusten den (92), hiru NZ-hitza erakusten ditu:

(92) *Nora uste dezu Jonmak nora esan dizula nora jun zela?* (A. 6;1)

Beste hiru galderetan bi NZ-hitza agertzen dira, beheko adibideetan, (93)-(95), ikusten denez:

(93) *Zeatik usten dezu Jonmak esan ditela zeatik gelditu zuela etxian?* (A. 6;1)

(94) *Zeni uste dezu Jonmak zeni esan ditela eman diola muxu?* (A. 6;1)

(95) *Ze uste dezu ze erabaki zuela gidatzea?* (A. 6;5)

Azkenik, beste bi galderetan bigarren perpaus txertatua ez da aditzik agertzen:

(96) Nola usten dezu Jonmak esan dizula gaztelua? (A. 6;1)
HELBURUA: Nola uste duzu esan dizula egin dutela gaztelua?


(97) Ze uste dezu Jonmak ze esan ditela poltsan? (A. 6;1)
HELBURUA: Zer uste duzu esan didala dagoela poltsan?

Ikus dezagun orain zer gertatzen den Axelen galderekin perpaus txertatuaren aditz mugidari begiratuaz. Hizkuntza naturaletan Mugimendu Partzialeko galderen ezaugarrietako bat da perpaus txertatua ez dagoela aditz mugidarik Konp burura (Brandneretik moldatutako adibideak, 2000: 51):

(98) *Was glaubst du [wen er hat eingeladen] ?

(99) Was glaubst du [wen hat er eingeladen] ?

Axelen galderei begiratuaz, Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egituretako aditza beti agertzen da perpaus txertatuaren ezker muturrean. Axelek ekoizten dituen helduen moduko galderetan berriz hau ez da beti gertatzen, beheko irudian erakusten dugun bezala:



5 Irudia

Perpau txertatueto aditzaren posizioa Axelen galderetan

Hona hemen zenbait adibide:

- (100) ***Ze** uste dezu **ze** gidatu zuela neskak?* (A. 6;0)
 (101) ***Nora** uste dezu **nora** eraman zuela Shin Chanek Elur?* (A. 6;5)
 (102) ***Zer** uste dezu **zergatikan** dago Masao negarrez?* (5;4)

Eta hemen Axelen helduen moduko galderetan gertatzen dena:

- (103) *Norekin uste dezu Bartek nabi dula bitzegin?* (A. 6;9)
 (104) *Zeatik usten dezu Masao daola negarrez?* (A. 5;9)
 (105) *Zergatik usten dezu **daola** Masao negarrez?* (A. 6;5)

Euskarazko H1 gisako UL NZ-galderen jabekuntzan bildutako datu guztiak aurkeztu ondoren, jarraian hauei buruzko eztabaidarekin hasiko gara.

Eztabaida

Hasteko, H1 gisako euskarazko UL NZ-galderen jabekuntzari buruzko ikerlan honetan lortu diren emaitzak bat datoz beste H1 gisako ikerlanetan lorturiko emaitzekin (cf. Thornton 1990; van Kampen 1997; Oiry 2002; Jakubowicz 2004; Gutierrez 2006). Alde horretatik badirudi orain arte aztertutako haur hizkuntza guztietan fenomeno bera aurkitzen dela. Gure datuek tipologikoki ezberdina den hizkuntza batean ere gauza bera gertatzen dela erakusten dute, nahiz eta euskaraz UL NZ-galderetan, aztertutako beste hizkuntzetan bezalaxe NZ-hitza matrizeko perpau-seraino mugitzen den. Bestalde, euskarazko emaitza hauek berretsi egiten dute beste ikerlariak ondorioztatutakoa, alegia, ezohiko galdera hauek GU-ak onartzen dituen galderak direla eta haurraren bilakaeraren parte direla eta ez gauzatze akats soilak, eztabaidan zehar aztertuko ditugun arrazoiengatik.

Goian ikusi dugun bezala, argudiatu izan da ezohiko galdera hauek ez direla benetan galdera bakarra, bi baizik. Beste hitzetan, esan izan da galdera hauetako bigarren perpausa ez dela benetan perpaus txertatu bat baizik eta harreman parataktiko bat dagoela lehenengo eta bigarren perpausen artean, behean agertzen den modukoa:

(106) *Zer uste duzu? Nor bizi da etxe horretan?*

Baina argi dago Axelen ezohiko perpausak, Mugimendu Partzialeko perpausak esate betera, ez direla bi matrizeko perpausak bata bestearen atzetik jarrita. (107) adibidean ikus daitekeenez, bigarren perpausetik aditz lagunak euskaraz perpaus txertatuetan agertzen den konplementatzailea eramaten duela:

(107) *Zer uste duzu **zenek** lapurtu **zuela** galleta?* (A. 5;1)

Bigarren perpausa perpaus nagusia balitz, lehenengo perpausaren modukoa, honek bezala, aditz laguntzailea konplementatzaile gabe agertuko litzake, (106) adibidean erakutsi dugun bezala. Beraz, argi dago menpetasun konplementatzailea daramaten ezohiko galdera guztiak horixe direla, UL NZ-galderak eta ez matrizeko bi galdera bata bestearen jarraian. Aurkikuntza honek Thorntonek proposaturiko analisis baztertzer garamatza. Gogoratu bere analisiak ez dituela Mugimendu Partzialeko galderak UL egituratzat jotzen, baina argi dago, euskarazko haur hizkuntzan behintzat, konplementatzailearen erabilerrari begiratuaz, hauek UL galderak direla.

Egia da, Axelen galdera guztiak ez dutela mendeko konplementatzaile gabe eramaten. Baina esan behar dugu baita ere konplementatzaile gabeko galderak ez direla beti bakarrik Mugimendu Partzialeko edo NZ-kopia galderetan agertzen. Azelek ekoizten dituen helduek bezalako zenbait galderekin ere konplementatzaile gabe agertzen dira eta:

(108) *Zergatik uste dezu Masao dao negarrez?*

Eta bestalde, Azelek konplementatzaileak konsistenteki ekoizten hasten denean ere bi elementuak agertzen direlako galdera berean: konplementatzailea aditz laguntzaileari loturik eta NZ-hitza mendeko ezker muturrean, ondoko adibideetan ikus daitekeenez:

(109) *Zer uste dezu **zein** bizi **dala** etxean?* (5;1)

(110) ***Zein** uste dezu **zein** kotxe erosi **zuela**?* (5;6)

Beraz, esan dezakegu konplementatzaile eza ezohiko galderen ezaugarri ez dela, baizik eta Axelen UL galderen bilakaeraren parte, denborarekin menderatzen duen ezaugarri bat, goiko 3 Irudian ikusi dugun bezalaxe. Gaineratu behar dugu antzeko datuak H1 gisako gaztelaniazko jabekuntzan ere aurkitu direla. Gaztelaniaz, halaber, zenbait kasuetan mendekotasuna adierazten duen *que* konplementatzailea agertzen da Mugimendu Partzialeko galderetan, jarraian ikus daitekeen bezala (Gutierrez 2006: 271):

(111) *Tú **qué** crees **que** **quién** vive en la casa?*

Haur jabekuntzan aurkitu diren ezohiko galderak benetako menpetasun erlazioa dutela adierazten duen bigarren datu bat NZ-kopia egituretan aurkitzen dugu:

(112) ***Nori** uste dezu **nori** eman **ziola** muxu?* (A. 5;10)

Honelako kasuetan ezin da argudiatu lehenengo perpausa, *nori uste duzu*, perpaus matrize bat dela euskaraz, *zer uste duzu?* perpausaren parekoa. *Zer uste duzu?* galderak erantzun bat du: *hau edo bestea uste dut*. Baina *nori uste duzu?* galderak ez du horrelako erantzunik: *hari uste diot*. Beraz, argi geratzen da ez Mugimendu Partzialeko galderak eta ez NZ-kopiak ere ez direla bi galdera matrize bata bestearen jarrian. Euskara bezalako hizkuntza batek, non konplementatzailea morfema uztartu bat den, argi erakusten du ingelesa bezalako hizkuntza batean hain argi agertzen ez dena.

Bada beste datu bat interesgarria dena gai honi buruz.¹⁷ Subjektuzko galderetan euskaraz NZ hitzak ergatibozko marka darama, (113) adibidean ikus dezakegunez:

(113) **Nork** uste duzu irakurri duela zure liburua?

Beraz, Axelen ezohiko galderetan aurkitzen ditugun subjektuzko galderetan matrizean ahoskatzen duen NZ-hitza ergatibo marka badarama benetan NZ-hitza perpaus txertatutik matrize mugitu dela erakutsiko luke. Hona hemen Axelek ekoizturiko mota honetako galdera bat:

(114) **Nork** uste dezu **nor** in zula galletak? (A. 5;9)

Goiko adibidean ikusten denez, ergatibozko *-k* marka matrizeko perpausaren agertzen da soilik, mendeko NZ-hitza *nor* soil bat delarik. Beraz, berriro ere, euskararen ezaugarriek beste hizkuntzetarako proposaturiko analisiak egiaztatu eta osatzea edo datu berrien aurrean egokitzea ahalbidetzen dute. Behin puntu hau argitu ondoren, alegia, bai Mugimendu Partzialeko eta bai NZ-kopia egiturak menpetasun erlazio bat mantentzen dutela argitu ondoren, ikus dezagun euskarazko datuetan aurkitu ditugun galderak beste ikerlanetan aurkitu diren galderak betetzen dituzten ezaugarri berberak betetzen dituzten ala ez. Hasteko, Axelen ezohiko galderak Thorntonek bere ikerlanean aurkitutako beste haur hizkuntzatan ere betetzen diren bi baldintza berberak betetzen dituzte. Gogora dezagun baldintza hauek Mugimendu Partziala eta NZ-kopia erabiltzen duten hizkuntza naturalek ere betetzen dituztela. Bi ezaugarri hauek behean aurkezten ditugu.

Bri-loturiko NZ-hitza eta NZ-kopia egitura

Thorntonek (1990) bere ikerlanean aurkituriko ezohiko galderen ezaugarrietako batek Bri-loturiko NZ-galderekin zerikusia dauka. Gogora dezagun ekoiztu beharreko galderak Bri-loturiko NZ-hitza bat daramanean, NZ-kopia egitura ez dela inoiz agertzen haur hizkuntzan. Murriztapen hau bere eginez, Axelek ekoizten dituen NZ-kopia galderetan ez da inoiz Bri-loturiko NZ-hitza agertzen. Hau da, H1 gisako euskarazko UL NZ-galderen jabekuntzan (68) bezalako galderarik ez da inoiz agertzen:

(115) ***Zein gizon** uste dezu **zein gizon** erosi zuela traktorea?

Kasu hauetan, eta Bri-loturiko bi NZ-kopia ekiditeko, Axelek honako galdera mota ezberdinak ekoizten ditu:

¹⁷ Lea Nashi eskerrak eman behar dizkiot datu hau ikustarazteagatik.

- (116) *Zein gizon uste duzu zenek gidatu zuen traktoria?* (A. 5;4)
 (117) *Nora uste dezu zein tokitara joan zela?* (A. 6;9)
 (118) *Zein uste dezu zein gizonak erosi zuela traktoria?* (A.6;1)
 (119) *Noren uste dezu noren gaztelua dela?* (A. 6;9)
 (120) *Nor uste dezu noren galletak direla?* (A. 6;9)

Axelek, (116) adibidean Bri-loturiko NZ-hitza matrizeko KonpS-era mugitzen duen bezala, (117) adibidean mendeko KonpS-ean ahoskatzen du. Bi kasuetan Bri-loturiko NZ-galderan agertzen den NZ-hitza soilak Bri-loturiko NZ-hitzarekin komunztadura erakusten du: (116) adibidean, *zenek* bezalako NZ-hitza soil bat erabili-az. Bri-loturiko NZ-hitza pertsona tasunarekin komunztadura erakustez gain, NZ-hitza soilak ere ergatibo marka kasua darama kasu honetan. Bigarren adibidean, (117) adibidean, *zein tokitara* Bri-loturiko NZ-galderaren besarkada ezartzen duen NZ-hitza soilak 'toki' tasuna darama, *nora* bezala gauzatua. Kasu hauetan argi gertatzen da NZ-kopia egituraren aldaera 'soilago' bat erabiltzen duela Axelek, Bri-loturiko NZ-hitza osoaren kopia bat ahoskatu beharrean. Dena den, ukatu ezina da bi NZ-hitzen artean nolabaiteko tasunen kopia edo partekatzea dagoela, hau da, ez direla Mugimendu Partzialeko egiturak bezalakoak.

(119) eta (120) adibideek antzeko zerbait erakusten dute. Kasu hauetan NZ-hitza konplexua edutezkoa da. (119) adibidean, jabetza adierazten duen NZ-hitza konplexua perpaus txertatuko KonpS-an ahoskatzen da, matrizean haren zati baten kopia agertzen delarik, edutezko NZ-hitza kopia bat zehazki, elementu nominalarik gabe. (120) adibidean berriz, matrizean ahoskatzen den NZ-hitza ez du edutezkoa adierazten duen *-ren* atzizkirik erakusten. Baina mendeko perpausarekin pertsona komunztadura mantentzen du. Beraz, badirudi Axelek NZ-hitza osatzen duten tasun ezberdinak sakabana ditzakeela. Ikus dezagun orain beste haur hizkuntzetan aurkitu den bigarren ezau-garriarekin, hots, jokatu gabeko perpaus txertatua duten galderekin zer gertatzen den.

Jokatu gabeko mendeko perpausa duten galderak

H1 gisako ingelesezko eta nederlanderazko ezohiko perpaus guztiak txertatutako perpausaren aditza jokatu denean soilik agertzen dira eta inoiz ez mendeko aditza jokatu gabea denean. Euskarazko emaitzetan ikusi dugun bezala, Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturak mendeko perpausaren aditza jokatu denean ekoizten ditu Axelek soil soilik eta inoiz ez perpaus txertatuko aditza jokatu gabea denean. Hau beheko adibidean argi ikusten da:

- (121) Axel (6;5):

IKER.: *Axel, galdetu amatxori zenek nahi duen berak lorea erostea.*

AXEL: *Amatxo, zuk zein nahi dezu lorea erostea?*

IKER.: *Orain galdetu niri zenek uste duan erosi duela lorea.*

AXEL: *Zein uste dezu zenek erosi duela lorea?*

Beraz Axelen ezohiko galderak mendeko aditza jokatuarekin bakarrik azaltzea beste iklerlanekin bat dator. Honaino, euskarazko ezohiko galderekin beste hizkuntzetan

aurkitutakoarekin bat datozela argitu dugu. Orain, euskarazko datuek erakusten dituzten datu berriak aztertzen hasiko gara. Datu hauek Thorntonek proposaturiko analisia baztertzera eramango gaitu. Alde batetik, eta goian aipatu dugun bezala, euskarazko datuek erakusten dute Mugimendu Partzialeko egiturak ere UL egiturak direla, berriro ere, Thorntonek proposaturikoaren aurka. Bestetik, Axelen Bri-loturiko galderak ebidentzi bezala hartuaz, perpaus txertatuan agertzen den NZ-hitza konplementatzaile bat ez dela argudiatuko dugu, Thorntonen analisiaren aurka, baizik eta perpaus txertatuko KonpS-ko espezifikatzailean dagoen NZ-hitza ahoskapena.

Gure proposamena

Euskarazko Mugimendu Partzialeko galderak UL egiturak direla onartzen badugu, Thorntonek proposatzen duen analisia baztertu egin behar dugu egitura horiek azaltzeko. Thorntonek mendeko perpausko NZ-hitza komunztadura duen konplementatzailetzat jotzen du, perpaus txertatuko KonpS espezifikatzaile gunetik igarotzen den, eta matrizean ahoskatzen den, NZ-hitza arrastoarekin komunztadura erakusten duena. Beraz, matrizeko perpausan *zer* NZ-hitza nondik norakoa ez da argi geratzen. Hau da, matrizean ahoskatzen den NZ-hitza mendeko perpausko KonpS-eko espezifikatzailean dagoen NZ-hitza bada, honek benetako NZ-hitza itsura eduki beharko luke eta *ez zer* soil batena. Beraz, Mugimendu Partzialeko euskarazko egiturak azaltzeko beste analisi bat behar dugu. Guk proposatzen dugun analisiak Chomsky (1995) hartzen du oinarritzat. Analisi honetan, sistema konputazionalerako ekonomi hatsarre orokor bat proposatzen da. Hatsarre orokor honen arabera mugimendu operazio guztiek erkatu beharreko tasuna soil soilik erakartzen duten. Chomskyk (1995: 262) honela zehazten du:

- (122) T(asunak) bakarrik bateratzea lortzeko behar beharrezkoa duen materiala soilik eramaten du

Erakartze honen ondorioz beste elementuren bat erakarria gertatzen bada, FF eremuaren ondorioz izango da, non sakabanatutako tasunak interpretaezinak diren. Chomskyk (1995) adibide gisa NZ-mugimendua ematen du: NZ-hitza gutxienez hiru elementuez daude osaturik: NZ-tasuna, mugagabea den beste elementu bat eta [\pm gizakia] den tasuna. Ingeleseztik NZ-hitza NZ-tasunak ezin du bakarrik aurreratu, honek eratorpena FF eremuan ulertezina bihurtuko lukeelako. Beraz, badirudi GU-ak onartzen duen gutxi markaturik dagoen aukera NZ-tasunaren mugimendua izango litzakeela, zein japoniera (Watanabe 1991) bezalako hizkuntzetan aurkitzen den. Haurren gramatikek gutxi markatuena den aukera aukeratzen dutela suposatzen bada eta beste NZ-tasunak ez diren elementuen mugida inputetik ikasi beharreko FF baldintzen isla badira, orduan espero da NZ-tasunaren mugida soilik erakusten duten egiturak haurren gramatika aurki daitezkeela. Hau dena kontuan harturik guk proposatzen dugu Mugimendu Partzialeko Axelen UL-ko NZ-galderek goian aurkeztutako mugimenduaren ekonomi baldintzaren aukera lehenetsiaren isla direla. Azelek ekoizten dituen lehenengo galderek matrizeko KonpS-rako NZ-hitza NZ-tasunaren mugida soilik erakusten dute. Badirudi NZ-tasun honen gauzatzea '*zer*' galderari dagokion formarekin haur jabekuntzan fenomeno orokorra dela, beste hizkuntzetan ere NZ-hitza hau aukeratzen baita Mugimendu Partzialeko egiturak osatzeko.


Proposamen honen aldeko lehenengo ebidentzi bezala Axelen galderek denboran zehar duten bilakaeran aurkitzen dugu, arestian 1 Irudian erakutsi duguna. Gogora dezagun, H1 gisako euskarazko UL NZ-galderen bilakaerak, Axelen ekoizpenak erakusten duen heinean behinik behin, honako aro ezberdinak erakusten dituela:

1. Mugimendu Partzialeko aroa
2. NZ-kopien aroa
3. Bi ezohiko egituren elkar bizitza lehenengo helduen bezalako galderekin batera.

Axelen galderen bilakaera honek, hau da, Mugimendu Partzialeko aroa, NZ-kopien aroa eta azkenik helduen galdera motak ekoiztea, H1 gisako gaztelaniaren jabekuntzaren parekoa dela esan dezakegu. Material berberak erabilia egindako esperimendu batean, Mainer, H1 gaztelaniaz jabetzen den 5 urteko haurren lehenengo aroko galderak Mugimendu Partzialekoak izan ziren, beheko adibidean ikus daitekeen bezala:

- (123) *Tú crees dónde fue el niño?* (M. 4;10)
 zuk uste-2sg nora joan-irag. -a haur
 Lit: 'Uste duzu nora joan da haurra?'
 HELBURUA: 'Nora uste duzu joan dela haurra?'

Maidarren bilakaerari begiratuaz, honako irudia agertzen zaigu:



6 Irudia

Maidarren UL NZ-galderen bilakaera

Goiko irudian ikusten den bezala Mainerrek hasieran ekoizten dituen galderak ez dira UL NZ- galderak. Bigarren sesioan lehenengo Mugimendu Partzialeko galderak ekoizten hasten da, (goiko adibidean bezalakoak) non besarkadura ezartzen duen NZ-hitza isilekoa edo hutsa den.¹⁸ Laugarren sesiotik aurrera Mainerrek ma-

¹⁸ Gisa honetako galderak zenbait hizkuntza naturaletan aurki daitezke, malaysieran (Cole eta Hermon 2000), edo kikueraan (Sabel 2000). Haur jabekuntzan ere aurkitu izan dira, frantsesez esate baterako (Oiry 2002) eta baita H2 gisako ingelesaren jabekuntzan (Wakabayashi eta Okawara (2003) eta

trizeko besarkada ezartzen duen ageriko NZ-batez osaturiko Mugimendu Partzialeko galderak ekoizten ditu, bosgarrengoan lehenengo NZ-kopia egiturak ekoizten hasten delarik. Azkeneko sesioan mota guztietako galderak ekoizten ditu, helduen moduko galderak barne. Beraz, H1 gisako bai euskararen eta bai gaztelaniaren UL-ko NZ-galderen bilakaerari begiratuaz argi ikusten da haurrek ekoizten dituzten lehenengo UL galderak Mugimendu Partzialeko galderak direla.

Guk proposatzen dugun analisia Mugimendu Partzialeko egiturak zergatik diren haurrek ekoizten dituzten lehenak azaltzeko gai da: ekonomi orokorreko hatsarrearen isla direlako. Honela, gure proposamenaren arabera haurrak UL NZ-galderak ekoizten hasten direnean lehenetsitako aukeratik hasten dira, hau da, mendeko perpauseko KonpS gunetik behar beharrezkoa den elementua bakarrik mugituaz matrizeko besarkada ezartzeko, hau da, NZ tasuna, zeinek 'zer' bezalako NZ-hitzen itsura hartzen duen. Aukera honek Mugimendu Partzialeko egiturak sortuko lituzke. Beraz, haurren hizkuntzan aurkitzen diren Mugimendu Partzialeko galderak honako egitura hau edukiko lukete:

$$(124) \text{ [}_{\text{KONPS}} \text{Zer [uste duzu [}_{\text{KONPS}} \text{nora [eraman zula t ?]]]]] (A. 5;2)$$

Esan behar da modu honetako analisiak proposatuak izan direla alemanezko edo frisiar hizkuntzetarako, goian ikusi dugun bezala (Hiemstra 1986, Cheng 2000, Felsler 2004),¹⁹ nahiz eta haur hizkuntzetan aurkitzen diren ezohiko galderak azaltzeko erabiliak izan ez diren orain arte.

Jarraian ikusiko dugu proposaturiko analisiak euskarazko Bri-loturiko galdera mota ezberdinak azaltzeko gai ere dela. Goian ondorioztatu dugunaren arabera perpaus txertatuko NZ-hitza ez da konplementatzaile bat, baizik eta KonpS-eko espezifikatzailetik igarotzen den NZ-hitzen ahoskapena. Honen aldeko ebidentzia perpaus txertatuko KonpS-an aurkitu ditugun Bri-loturiko NZ-hitzak dira ((117), (118), (119) edo (120) bezalakoak). Gogora dezagun ingelesezko eta nederlandarazko haur hizkuntzetan ez direla horrelako egiturak aurkitu. Hizkuntza horietan, kasu gehienetan, Bri-loturiko NZ-hitza matrizeko KonpS-ren espezifikatzaile gunean agertzen da, mendeko perpauseko KonpS-an, Bri-loturiko NZ-hitzarekin nolabaiteko komunztadura agertzen duen NZ-hitza soil bat ahoskatzen delarik:

- (125) H1 ingelesaren adibidea
Which Smurf do you think who has roller skates on?
 zein pottoki uste duzu zenek daukala irristailuak jarrita
 Lit: 'Zein pottokik uste duzu nor dauzka irristailuak jarrita?'

Yamane (2003) ere, beheko adibideetan ikus daitekeenez frantseserako (Oiry 2000) eta Wakabayashi eta Okawara (2003: 231):

- (i) *Tu crois quoi qui est caché dans le sac?*
 zuk uste duzu zer/-ela dago gordeta barruan poltsa
 'Zer uste duzu dagoela gordeta poltsa barruan?'
 HELBURUA: 'Zer uste duzu dagoela poltsan?'
- (ii) *Do you think what is in the bag?*
 lag. zuk uste zer dago barruan poltsa
 'Uste duzu zer dago poltsan?'

¹⁹ Felserek (2004), aukeraturitako tasunen ezeztapena onartzen duen antzeko analisi bat proposatzen du alemanezko NZ-kopia egiturarentzat.

- (126) H1 nederlanderá (van Kampen 1997: 187):
- In welk huis denk je waar Femke woont?* (L. 7;10.1)
zein etxetan uste duzu non Femke bizi da
Lit: 'Zein etxetan uste duzu non bizi da Femke?'
 - Over wie denk je wie wij praten?* (L. 7;10.1)
buruz nori uste zuk nor guk hitzegiten dugu
Lit: 'Nori buruz uste duzu nor hitzegiten dugu?'
 - Op welke dag denk je wanneer ik jarig bent?* (L. 7;10.1)
-tan zein egun uste-2sg noiz nik urtebetetzea da
Lit: 'Zein egunetan uste duzu noiz da nire urtebetetzea?'

Bereiziki van Kampenek (1997: 156) aurreikusten du Bri-loturiko NZ-galderetan ez dela inoiz emango kasurik, non Bri-loturiko NZ-hitza mendeko perpausean agertuko den, komunztadura erakusten duen NZ-hitza soila matrizeko KonpS-an agertzen delarik. Hau da, haur hizkuntzatan honako adibide hauek ez dira posible van Kampen-en ustetan:

- (127) **Wo glaubst du in welchem House Lotte wohnt?*
non uste-2sg lag. -an zein etxe Lotte bizi-2sg
Lit: 'Non uste duzu zein etxetan Lotte bizi da?'

Honen moduko adibideek erakutsiko lukete mendeko KonpS-an agertzen den NZ-hitza ez dela mendeko K buruan dagoen konplementatzaile bat, gune hori, K buruaren gunea, buru batek bakarrik bete dezakeelako eta Bri-loturiko NZ-hitza sintagma bat denez ezingo lukeelako gune hori bete. Beraz, (124) bezalako haur galderak erdibideko NZ-hitza komunztadura erakusten duen konplementatzaile bezala analizatzeko proposamenaren aurkako ebidentzia izango lirateke. Beraz erabakigarria da Axelek zehazki mota horretako galderak ekoiztu izana, behean agertzen diren adibideek erakusten duten bezala:

- (128) a. *Nora uste dezu ze tokitara jun ziela?* (A. 6;9)
b. *Nun uste dezu zein tokitan busti zirela?* (A. 6;9)

Beraz, argi dago kasu hauetan perpaus txertatua agertzen diren NZ-hitzak KonpS-ko espezifikatzaile gunean daudela. Gainera, bi adibideetan konplementatzaile ere agertzen da perpaus txertatuko aditz lagunarekin batera. Eta azkenik, bi adibideetan matrizeko NZ-hitza [+toki] tasuna darama, perpaus txertatuko NZ-hitzeekin lotura bat erakutsiaz. Datu hauen aurrean gure analisiak galdera hauen eratorpena jarraian azaltzen dugun modukoa dela proposatzen du: Bri-loturiko NZ-hitza *ze tokitara* (128a) adibidean edo *zein tokitan* (128b) adibidean, abiagunetik perpaus txertatuko KonpS-ra igotzen da. Gune horretatik matrizeko besarkada ezartzeko beharrezkoa den NZ-tasunekin batera Bri-loturiko NZ-hitzaeren [+tokia] tasuna ere daraman NZ-hitza matrizerara aurreratzen da, non *nora* bezalako edo *non* bezalako itxuraz ahoskatzen den:

- (126) [_{KONPS} **nora** [uste duzu [_{KONPS} **ze tokitara** [jun ziela t ...]]]]
-

Mota honetako galderak H1 gisako gaztelaniazko jabekuntzan ere aurkitu ditugu eta baita H2 gisako ingelesaren jabekuntzan ere:

- (130) H1 gaztelaniazko adibidea (Gutierrez 2006: 277)
 ¿*Quién te ha dicho la ama **qué señor** ha comprado el tractor?* (M. 6;9)
 HELBURUA: 'Qué señor te ha dicho la ama que ha comprado el tractor?'
- (131) H2 gisako ingelesaren jabekuntza (Gutierrez 2005: 183):
- a. **Who** do you think **which baby** eats the ice cream?²⁰
 nor uste duzu zein haurra jaten du izozkia
 HELBURUA: 'Zein haurrak uste duzu jaten duela izozkia?'
 - b. **Who** do you think **which girl** did buy the plant?
 nor uste duzu zein neska erosi zuen landarea
 HELBURUA: 'Zein neskak uste duzu erosi zuela landarea?'

Bai (130) eta bai (131) adibideek erakusten duten bezala, kasu hauetan mendeko perpausaren KonpS-ko espezifikatzailean agertzen den Bri-loturiko NZ-hitzeko NZ-tasunarekin batera matrizerak erakarria izan den tasuna [+pertsona] bezalako tasun bat izango litzateke. UL galderen bilakaerarekin jarraituaz, proposatzen dugu haurrak NZ-tasun soilaren mugimendua nahiko ez dela konturatzen direnean, NZ-kopia egiturak ekoizten hasten direla, non gure analisiaren arabera, Mugimendu Partzialean ikusi dugun NZ-tasunarekin batera beste tasun batzuek ere erakarriak diren.

Analisi honek perpaus txertatuko Bri-loturiko NZ-hitzaren [+tokia] tasuna ere daraman NZ-hitz soila agertzearen arrazoia azaltzeaz gain, mendeko KonpS-an Bri-loturiko NZ-hitzen presentzia ere azaltzen du, azken hauek mendeko KonpS-an espezifikatzaile gunea betetzen dutelarik. Haur hizkuntzarako proposatu dugun gure analisi honen ondorioz Axelek hasieratik UL-ko dependentziak sortzeko mekanismoa duela onartzera eramaten gaitu. Axelek lehenesten duen aukerak GU-ak onartzen duen NZ-tasun soilaren matrizerako mugimendua da, NZ-tasunarekin batera beste zenbait tasun mugi daitezkeela erakusten duten NZ-kopia egiturak ekoizten dituelarik, helduen bezalako gramatikara heldua urretik.

Ondorioak

Datuek erakutsi dute H1 gisako euskarazko UL-ko NZ-galderen bilakaeran, beste hizkuntzatan aurkitu den bezala, ezohiko Mugimendu Partzialeko eta NZ-kopia egiturak ekoizten direla eta hauek beste hizkuntzetan jarraitzen dituzten murriztapen berberak jarraitzen dituztela euskaraz ere, hots, NZ-kopia egituretan Bri-loturiko NZ-hitzak ez agertzea eta perpaus txertatua jokatu gabea denean ez Mugimendu Partzialeko eta ez NZ-kopia egiturak agertzea. Honek denak egitura hauek ez direla gauzatze akats hutsak berretsizera garamatza. Bestalde, euskarazko datuek haur hizkuntzetarako proposatu den analisia baztertzerak bultzatu gaitu. Euskarazko datuak azaltzearen eta Chomsky (1995) oinarritzat hartuta, erdibideko NZ-hitza mendeko

²⁰ Galdera hauek 18 urteko euskara/gaztelania elebiduna den neska batek ekoiztu zituen ikastolan 9 urtez ingelesa ikasten egon ondoren. Gai honen ingelesaren maila 6/10 zen Oxford English Placement (Allan 1992) test batek erakutsizuen bezala.

KonpS-an ahoskatzen den NZ-hitzaren aztarna dela argudiatu dugu. Honen aldeko ebidentziak, alde batetik Bri-loturiko NZ-galderak eta konplementatzailearen erabilera dira eta bestetik, Axelen galderen bilakaera denboran zehar, non lehendabizi ekoizten dituen egiturak Mugimendu Partzialekoak diren. Hauek perpauk txertatuko KonpSren espezifikatzaile gunean agertzen den NZ-hitzaren NZ-tasunaren mugimenduaren adibide dira. NZ-kopia egiturak bestalde, NZ-tasunaz gain beste tasunen mugimenduaren adibidetzat jo ditugu. Ondorioz, gure analisiaren arabera, Axelek hasieratik du UL-ko dependentziak sortzeko mekanismoa. Azkenik esan dezakegu euskarazko datuek erakusten dutela GU-ak eskaintzen dituen aukerak oinarri hartuta, haur hizkuntza batetik bestera aukera hauek hizkuntza bakoitzaren ezaugarri propioen eraginez aldatu egiten direla. Euskarazko haur hizkuntzako ezohiko galderak ahalbidetu gaitu beste haur hizkuntzetan aurkitu diren datuak osatu eta datu berriak kontuan harturik analisi berri bat proposatzeko.

Erreferentziak


- Albizu, P., 1993, «Where is Comp in Basque?», University of Southern California eskuizkribua.
- Barreña, A., 1995, *Gramatikaren jabe-kuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Argitarapen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Brandner, E., 2000, «Scope Marking and Clausal Typing», in Lutz, Müller eta von Stechow (arg.), 45-75.
- Brody, M., 1995, *Lexico-Logical Form*, Dordrecht: Kluwer.
- Cheng, L. L-S., 1991, *On the Typology of Wh-Questions*, Doctoral dissertation, MIT.
- , 1997, «Partial Wh-movement», *UCI Working Papers in Linguistics* 3, 27-50.
- , 2000, «Moving just the feature». In Lutz, Müller eta von Stechow (arg.), 77-99.
- Chomsky, N., 1986, *Barriers*. Cambridge, MA: MIT Press.
- , 1995, *The Minimalist Program*, Cambridge, Massachusetts: MIT Press.
- Cole, P. eta Hermon G., 2000, «Partial Wh-movement: evidence from Malay», in Lutz, Müller eta von Stechow (arg.), 101-130.
- Contreras, H., 1991, «On the position of subjects». In S. Rothstein (arg.), *Perspectives on Phrase Structure: Heads and Licensing, Syntax and Semantics*, San Diego, CA: Academic Press, 25, 61-79.
- Crain, S. eta R. Thornton, 1998, *Investigations in Universal Grammar: A guide to experiments on the acquisition of syntax and semantics*, Cambridge, MA: MIT Press.
- de Villiers, J., T. Roeper eta A. Vainikka, 1990, «The acquisition of long-distance rules», in L. Frazier eta J. de Villiers (arg.), *Language Processing and Language Acquisition*, The Netherlands: Kluwer Academic Publishers, 257-297.
- du Plessis, H., 1977, «Wh-movement in Afrikaans», *LI* 8, 723-726.
- Etxepare, R., 1996, «V2, Pied-piping and the Antisymmetry Hypothesis in Basque», U. of Maryland, eskuizkribua.
- Fanselow, G. eta D. Ćavar, 2001, «Remarks on the economy of pronunciation», in G. Müller eta W. Sternefeld (arg.), *Competition in Syntax*, Berlin: de Gruyter, 107-150.
- Felser, C., 2004, «Wh-copying, phases and successive cyclicity», *Lingua* 114, 543-574.
- Frampton, J., 1990, *The fine structure of wh-movement and the proper formulation of the ECP*, Ms., Northeastern University.

- Gutierrez, M. J., 2005, *The Acquisition of English Long-Distance wh-questions by Basque/Spanish bilingual subjects in a school context*. Doctoral dissertation, University of the Basque Country.
- , 2006, «Acquiring long-distance wh-questions in L1 Spanish: a longitudinal investigation». In V. Torrens eta L. Escobar (arg.) *The Acquisition of Syntax in Romance Languages*, Amsterdam: John Benjamins, 251-287.
- Herburger, E., 1994, *A semantic difference between Full and Partial wh-movement in German*, paper presented at the 1994 Annual Meeting of the Linguistic Society of America, Boston.
- Hiemstra, I., 1986, «Some aspects of wh-questions in Frisian», *Nowele* 8: 97:110.
- Jakubowicz, C., 2004, *Production and interpretation of long distance questions in French SLI: Narrow syntax or interface deficit?* Paper presented at 'From Syntax to SLI Workshop at the University of Massachusetts, Amherst. November 2004.
- , 2005, *The language faculty: (ab)normal development and SM interface constraints*, Paper presented at GALA 2005, Siena, Italy.
- Koopman, H. eta Sportiche, D., 1986, «A note on long extraction in Vata and the ECP». *Proceedings of the North East Linguistic Society*, Amherst, MA: Graduate Linguistic Student Association, University of Massachusetts, 4, 357-374.
- eta —, 1988, *Subjects*. Unpublished manuscript. UCLA.
- Lutz, U., Müller, G. eta von Stechow, A., 2000, (arg.), *Wh-Scope Marking*. Amsterdam eta Philadelphia: John Benjamins.
- Laka, I., 1990, *Negation in syntax: on the nature of functional categories and projection*. Doctoral dissertation, MIT.
- eta J. Uriagereka, 1987, «Barriers for Basque and Vice-versa». In J. McDonough eta B. Plunkett (arg.), *Proceedings of NELS* 17. Amherst: University of Massachusetts, 394-408.
- Lasnik, H. eta M. Saito, 1984, «On the nature of Proper Government», *LI* 15, 235-289.
- Mahajan, A., 1990, *The A/A-bar Distinction and Movement Theory*, Doctoral dissertation, MIT.
- Marác, L., 1990, *Asymmetries in Hungarian*. Doctoral dissertation, University of Groningen.
- McDaniel, D., 1989, «Partial and Multiple Wh-movement», *NLLT* 7, 565-604.
- , Chiu eta T. Maxfield, 1995, «Parameters for wh-movement types: evidence from child English», *NLLT* 13, 709-753.
- Mitxelena, K., 1981, «Galdegaia eta mintzagaia euskaraz», in *Euskal Linguistika eta literatura: Bide Berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak, 57-81.
- Müller, G., 1997, «Partial wh-movement and Optimality Theory», *The Linguistic Review* 14, 249-306.
- Ordoñez, F., 1999, *Word order and clause structure in Spanish and other Romance languages*, Doctoral dissertation, City University of New York.
- Ortiz de Urbina, J., 1989, *Parameters in the Grammar of Basque*, Dordrecht: Foris.
- Oyri, M., 2002, *Acquisition des questions à longue distance*, Mémoire de Maîtrise, University of Nantes, France.
- Pesetsky, D., 1987, «Wh-in situ: movement and unselective binding», in E. Reuland eta A. ter Meulen (arg.), *The representation of (In)definiteness*, Cambridge, MA: MIT Press, 98-129.

- Plann, S., 1982, «Indirect questions in Spanish», *LI* 13, 297-312.
- Rizzi, L., 1990, *Relativized Minimalist*, Cambridge, MA: MIT Press.
- , 1992, «Argument/adjunct (a)symmetries». *Proceedings of the North East Linguistic society*, Amherst, MA: Graduate Linguistic Student Association, University of Massachusetts 22, 365-381.
- , 1995, *The Fine Structure of the Left Periphery*, Manuscript, Université de Genève.
- , 1997, «The fine structure of the left periphery», in L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar: A Handbook of Generative Syntax* Dordrecht: Kluwer, 281-337.
- , 2004, *The Structure of CP and IP: The Cartography of Syntactic Structures*, Volume 2. Oxford: OUP.
- Rudin, C., 1988, «On multiple questions and multiple wh-constructions». *Proceedings of the North East Linguistic society*, Amherst, MA: Graduate Linguistic Student Association, University of Massachusetts, 6, 445-502.
- Sabel, J., 2000, «Partial wh-movement and the typology of wh-questions», in Lutz, Müller eta von Stechow (arg.), -446.
- Suñer, M., 1986, *On the Structure of the Spanish CP*, Unpublished manuscript, Cornell University.
- , 1991, «Indirect questions and the structure of CP: some consequences». In H. Campos eta F. Martínez-Gil (arg.), *Current Studies in Spanish Linguistics*, Washington, DC: Georgetown U.P., 238-312.
- , 1994, «V-movement and the licensing of argumental wh-phrases in Spanish», *NLLT* 12, 335-372.
- Thornton, R., 1990, *Adventures in Long-distance Moving: the acquisition of complex wh-questions*, Doctoral dissertation: University of Connecticut, Storrs.
- eta E. Gavrusseva, 1996, «Children's split "Whose-questions" and the structure of possessive NPs», Paper presented at the 21st Annual Boston University Conference on Language Development.
- eta S. Crain, 1994, «Successful Cyclic Movement», in T. Hoekstra eta B. Schwartz (arg.), *Language Acquisition Studies in Generative Grammar*, Amsterdam eta Philadelphia: John Benjamins 215-252.
- Torrego, E., 1984, «On the inversion in Spanish and some of its effects», *LI* 15, 103-129.
- Uriagereka, J., 1988, *On Government*. Doctoral dissertation., University of Connecticut.
- , 1992, «The syntax of Movement in Basque». In J. Lakarra eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Donostia: Supplements of *International Journal of Basque Linguistics and Philology-ASJU*, 417-446.
- , 1999, «Multiple spell-out», in S. Epstein eta N. Horstein (arg.), *Working Minimalism*, Cambridge, MA: MIT Press, 251-282.
- Uribe-Etxebarria, M., 1995, «On the structure of spec IP and its relevance for scope asymmetries in Spanish and English», in J. Amastae et al. (arg.), *Contemporary Research in Romance Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins, 335-367.
- van Kampen, J., 1997, *First Steps in Wh-movement*, Ponsen eta Looijen: Wageningen.
- Van Riemsdijk, H., 1982, «Correspondence effects and the Empty Category Principle», *Tilburg Papers in Language and Literature* 12.
- Wakabayashi, S eta I. Okawara, 2003, «Japanese learners' errors on long distance wh-questions», in S. Wakabayashi (arg.), *Generative Approaches to the Acquisition of English by Native Speakers of Japanese*, New York: Mouton de Gruyter, 215-245.

- Watanabe, A., 1991, *Wh-in situ, Subjacency and chain formation*, Manuscript, MIT.
- Yamane, M., 2003, *On the interaction of first-language transfer and universal grammar in adult second language acquisition: Wh-movement in L1-Japanese and L2-English interlanguage*, Doctoral dissertation: University of Connecticut.
- Zagona, K., 1982, *Government and Proper Government of Verbal Projections*, Unpublished doctoral dissertation, University of Washington.
- Zubizarreta, M. L., 1994, «El orden de palabras en español y el caso nominativo», in V. Demonte (arg.), *Gramática del Español*, México, DF: Publicaciones de la *Nueva Revista de Filología Hispánica*.

1 ERANSKINA



Ekoiztu beharreko galdera: 'Zenek uste duzu egin zuela pastela?'